# elkar

UDABERRIA 2023
71. ZENBAKIA
www.elkar.eus









# IPUINGINTZAKO AHOTS BERRIAK

**Olatz Mitxelena, Garazi Arrula, Esti Martinez, Aintzane Usandizaga eta Iratxe Ormatza**



+

## CAMILLA LÄCKBERG

**Acompañada de Henrik Fexeus, vuelve con *La secta***

## IBON MARTIN

***El ladrón de rostros*, un thriller oteiziano**

## IZEN PROPIOAK:

**Eneko Bidegain · Iñigo Martinez · Andoni Agirrezabala · Kristonak
Leire Milikua · Txomin Artola · Maialen Lujanbio · Irati Jimenez ·
Antton Olariaga · Irati Fernandez Gabarain · Begoña Pro Uriarte ·
Javier Sánchez Beaskoetxea**

8435226189260

# Egin IRRIAren HARPIDETZA... eta jaso Mapa+diskoa edo CD ipuina opari!




- ✓ Haurren irakurzaletasuna sustatu.
- ✓ Haurrak balioetan hezi.
- ✓ Babestu Irrien Lagunak egitasmoa!
- ✓ Hilabetekaria, urtean 10 zenbaki.
- ✓ 32 orrialde, komiki eta denbora-pasekin!
- ✓ Jaso bazkide-txartela.

## URTEAN 49 euro!

### NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxiporretaren ikuskizunetan
3. (0034) 943-30 43 32ra deituz
4. harpidetza@irrienlagunak.eus
5. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian




berria ekar Katxiporreta IRRIEN LAGUNAK www.irrienlagunak.eus




IRATI FERNANDEZ GABARAIN





elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Gouverneurs 9 559 59 35 14
**BARAKALDO** Merindad Uribe 14 944 37 22 76
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33



# IPUINGINTZAKO AHOTS BERRIAK

**Ez dago geldi euskal literatura: etengabe sortzen dira obra bikainak, irakurle-taldeak eta ahots berriak. Adibidez, erreportaje honetako bostak, ipuin-bilduma bana kaleratu dutenak, bakoitzaren lehen edo bigarren liburua.**

Durangoko Azokako distirak eta *best-seller*rak atzean utzita, udaberria sasoi aproposagoa da proposamen berritzaileentzat, hain izen ezaguna ez duten egileentzat, txoko bat lortzeko liburu-dendako erakusleiho eta mahaietan, arreta apur bat komunikabideetan, denbora tarte bat denera iritsi ezinik gabiltzan irakurleen artean. Hori guztia merezi dute ondoren datozen lanek, narratiba motzekoak denak ere. Idazle gazteenetik hasita, **Esti Martinez**ek (Iruñea, 1991) poesia-liburu bat zeukan kalean, eta prosari heldu dio *Animalia domestikoak* idazteko. **Olatz Mitxelena**k, berriz (Oiartzun, 1989), **Marina Garcés** filosofoa euskaratua bazuen ere, Igartza bekaren laguntzaz idatzi du bere lehenengo lana: *Arrain hezur bat eztarrian*. Ipuin-bilduma bana zeukaten lehendik ere **Aintzane Usandizagak** (Lasarte-Oria, 1988) eta **Garazi Arrulak** (Tafalla, 1987), eta aurrekoan utzitako aho-gustu ederra berrestera datoz *Zomorrotu* eta *Lurraz beste* lan berriekin. **Iratxe Ormatzak**, azkenik (Bakio, 1971), bidaia-liburu baten ondotik heldu dio fikzioari, XX. mendea eta Bilbo besarkatzen dituen obrarekin: *Printzak begietan*.

## ESTI MARTINEZ

**Raymond Carver**ren ipuin batean (*Lumak*, **Juan Mari Mendizabal**ek euskaratutako *Katedrala* ipuin bilduma, Elkar, 1993), pauma edo hegazterren bat agertzen da, bere lumaje harroa bistan, bikote bat beste baten etxean bisitan dagoela. Liburu honetan ez dago paumarik (ala bai?), eta animaliak ere gutxi eta ez horren domestikoak (basoan erruten duten igelak, etxe inguruan dabiltzan txoriak, gabonetako opari den hamster bat); aldiz, ugari dira bikoteak, familiak, bizilekuak eta besteren etxera egindako bisitak.
Ohikotasun eta intimitate giro batean datoz bilduak istorio hauek, edonork ezagutu ditzake kontatzen diren egoerak, baita norbera edo hurbilekoren bat bertan identifikatu ere: zure umeak laguntxo bat gonbidatzen du etxera, zurea baino guaiagoa den familia bateko haurra, eta zain zaude bisita horren buelta noiz etorriko; elkarrekin urteak daramatzan bikoteak ohearen koltxoia aldatzea erabaki du, eta dendara doaz berria erostera; garai bateko neska-lagunak deitu dizu, elkarrekin bizi izan zineten etxea utzi behar duela eta kaxa bat dagoela bertan zure gauzaz betea, ea bila pasatuko zaren; udan amak esan dio semeari herrira doazela oporretan, mutikoak ezagutzen ez duen herri bero, lehor bat, ezagutzen ez dituen lehengusuz betea… Horrela, zortzi kontakizun osatzeraino.



ARGAZKIA: ITZALAK




**ANIMALIA DOMESTIKOAK**
Esti Martinez
ELKAR

**Esti Martinez** (Iruñea, 1991) berria dugu narratiban, aurretik poema-liburu bat atera zuen arren (*Azalberritze bat*, DK saria, Balea Zuria, 2018), baina bizitzari bi begiak zabalik erreparatzen dionaren jakituria ageri du giza jokabideak eta sentimenduak azaltzerakoan. Istorio hurbil eta errealak marraztu ditu, baina aldi berean zerbait inefablea dutenak barruan gordea, isats zabaldua erakusten duen hegazterren bat bezain eder eta misteriozkoa.

**XABIER MENDIGUREN**
Editorea



# GARAZI ARRULA

**Garazi Arrula**k poliki idazten omen du, oso poliki. Azeleroi eta geraldi zakarka bizi den honek, berriz, ñabadura bat gehituko lioke autorearen esanari: poliki idatziko du agian, baina tai gabe, eta sendo.
Tantaka-tantaka bildutako jardun horren emaitza gisa –itzultzailea eta editorea ere bada **Arrula**–, *Lurraz beste* narrazio-bilduma plazaratu berri du, *Gu orduko hauek* (Txalaparta, 2017) opera primatik sei urtera. Irudipena daukat liburu hura oharkabe samarrean pasa zela, eta horri buruzko hitz batzuk esan nahi nituzke lehenik eta behin.




**LURRAZ BESTE**
Garazi Arrula Ruiz
TXALAPARTA

Txundigarriak iruditu zitzaizkidan orduko haiek. Denonari buruz hitz egiteko norberarenean katramilatzen garenontzat miragarria da zer-nolako talentua duen **Arrula**k maila intimoa eta kolektiboa uztartzeko, nola kontatzen digun egunerokotasuna, eta nola erakusten dizkigun, literarioki, eta barrutik, atari bateko bizilagunen bilerak, haurren hartu-eman xalo-krudelak jolasorduan eta militantzia politikoaren ertzak.
Bigarren liburu honetan ere, tentuz eraikitako arkitekturak dira **Arrula**ren ipuinak. Hitzik ez dago soberan. Informaziorik ez zaigu ematen behar baino lehenago, ezta beranduegi ere. Esaldiz esaldi samur barneratzen gara afektuzko eraikinetan, eta halako batean sentitzen dugu deserosotasun bat, edo norberak ere pentsatu izandako zekenkerien errekonozimendu bat.
Arkitektura horiek ez daude airean, kokatuta baizik, **Donna Haraway**ren zentzuan, eta irakurleak sentitu egiten ditu usainak eta paisaiak. Arkitektura horietan hezur-haragizko jendeak bizi gara, dena desira eta beldur, batzuetan kemen. Arkitektura horietan denetakoak gara, gazteak eta zaharrak, hemengoak eta hangoak, horixe baita **Arrula**ren narrazioen beste bertuteetako bat: nolako aniztasuna erakusten duten. Bizi-esperientzien sorta zabal bat irakurlearen eskura.


ARGAZKIA: ZALOA FUERTES

**DANELE SARRIUGARTE**
Idazlea

# OLATZ MITXELENA

Gainbaloratua dago errealitatea. Jendarte hipermodernoko antsietatea eta inertziak astintzera dator **Olatz Mitxelena**ren opera prima. Irakurle handi baten liburua da **Mitxelena**rena. Nazioarteko idazleen eraginak suma daitezke. *Behe lainoa*n, adibidez, **Edgar Allan Poe**ren bihotz salatariaren taupadak usain bilakatzen dira. Liburuko alerik borobilenetakoa berau: jendaurrean pott egin izanaren dolua uxatu behar du Maitanek. Oinazea zornatu egin zaio barrunbeetan eta botaka eginda aterako du. Mitologia eta psikologia uztartzen ditu ipuin honek, dolu prozesua odisea bilakatzen du, eta ez du pasarte desatseginak ekiditeko goxagarririk erantsi. Higuina da liburu honen bereizgarrietako bat. **Julio Cortazar**ren eragina ere bistakoa da *Katuka* edo *Ahotsak sartu ziren* ipuinetan. Errealismo magikoak markatutako liburua da.


ARGAZKIA: XABI SALABERRIA



**ARRAIN HEZUR BAT EZTARRIAN**
Olatz Mitxelena
ELKAR

Irakurle handi baten liburua ez ezik, idazle handi batena ere bada. Ipuinaren amaieran profezia bihurtuko diren abiapuntuko metaforen erabilerari neurria hartu dio idazleak. Telesail bateko sarrerak nola, gertatuko denaren pistak eskaintzen ditu idazleak, baina irakurleak oraindik deskodetu ez ditzakeen eran. Ipuinaren itxieran, ordea, irakurleari irudituko zaio amaierak ezin zuela bestelakoa izan. Hala, josteko makina bat, hildako katu bat… jakin-minaren kliskagailu bihurtzen ditu, egunerokotasuna zartatuko duten elementu.
Emakumeen arteko aliantzak irudikatzen dira behin eta berriz: bi amonak distantziatik egiten diote konpainia elkarri, ahizpak ama zaintzeko antolatzen dira…
Hamarreko ipuin sorta osatu du **Mitxelena**k, egungo Euskal Herrian kokatutako gaiei heltzen diotenak baina mitologia mailako azalpen magikoz harilkatuak. Azken urteetako debutik indartsuenetakoa.

**JON MARTIN**
Idazlea



## AINTZANE USANDIZAGA



ARGAZKIA: EZTI PHOTO




**ZOMORROTU**
Aintzane Usandizaga
ELKAR

Duela urtebete inguru wordeko dokumentu bat bidali zidan **Aintzane Usandizagak**: gaur egun *Zomorrotu* bihurtu den testuaren zirriborroa zen. Epe horretan nire begien aurrean hazten ikusi ditut pertsonaiak, biribiltzen tramak, fintzen idazkerak; liburu sendo bat ikusi dut jaiotzen.
Lehendik ere ezagutzen (ge)nituen **Usandizaga**ren talentuak. *Kabitu ezina* estreinako ipuin-liburuan agerian utzi zuen autoreak gai dela giza harremanak aztertzeko, botere-harremanen adierazpenak identifikatzeko, familiako alfonbren azpian gordetzen direnak agerian jartzeko; eta hori guztia errazkeriatan laketu gabe, literaturaren tresnak erabiliz betiere, fikziogile petoa baita. **Usandizaga**k ez ditu esaldi teorikoak aletzen; **Usandizaga**k erakutsi egiten dizkigu pertsonaien ekintzak, esanak eta kontraesanak. **Usandizaga**k ez digu dena mamurtuta ematen: bere narrazio-moldea sotila da, iradokitzea bilatzen du, lekua uzten digu irakurleoi.
Oso serio hasi naiz eta ziur aski ez da bidezkoa. Izan ere, **Usandizaga**ren bigarren liburuan, **Usandizaga**ren literaturan oro har, umorea elementu garrantzitsua da oso. Zirriborroa emailera iritsi zitzaidanetik zenbat aldiz egin dudan gogotik barre liburuko elkarrizketa, irudi edo iruzkin batekin.
*Zomorrotu* honetan, unibertso txiki bat eraiki du. Ipuin bakoitzean unibertso horretako eguzki-sistema batean zentratzen da –bizpahiru pertsonaiatan–, eta geruzaz geruza aberastu egiten zaigu irakurketa, unibertso txiki horren ulerkera zabaltzen zaigu aurrera egin ahala. Pertsonaia bakoitza nondik datorren eta nora doan ezagutzen eta ulertzen dugu pixkanaka idazlearen tekla zoliari esker. Pertsonaiak bere osotasunean ikusten, begirada irekiagoa eta eskuzabalagoa izateko aukera ematen digu. Asko da hori. Besteak beste, pertsonaia horiek gu geu garelako.

**DANELE SARRIUGARTE**
Idazlea

## IRATXE ORMATZA

XX. mende osoa hartu du **Iratxe Ormatza**k bere lehen ipuin-bilduma hau osatzeko. 100 urte eta hiri bat: Bilbo. 100 urte, hiri bat, eta hamar istorio, batzuk gazi-gozoak beste batzuk dramatikoak, haietako bakoitzak andre bat protagonista duela: emakume gazte nahiz sasoikoak, familia burges edo txirokoak, ofizio eta izaera askotarikoak.
Hamarkadaz hamarkada ikusiko dugu Historia gure begien aurrean pasatzen: hiri bazterrean meatzeak egon ziren garaia, artista izatearekin amets egiten duten neska gazteak, Bilbon lehenengo filmak grabatu zirenekoa, 1934an langileek dena aldatu nahi izan zuten iraultza, gerraosteko miseria eta zapalkuntza, mende erdiko emigrazioa txaboletan bizitzera behartua, euskara berpizteko ahalegin nekezak, frankismo amaierako grebak eta poliziaren bortizkeria…
Aldatzen direnak bezain inportanteak dira, baina, bere horretan irauten dutenak: pobreen zanpatzea eta boteredunen larderia, langile jendearen nekeak, euskaldunen isiltzea, noiz indarrez noiz gutxiespenez, eta andrazkoen azpiratze sistematikoa, zeinahi delarik ere haien auzoa edo klase soziala, garaia edo lanbidea. Intersekzionalitatezko begirada du egileak, errepresio mota desberdinak gurutzatzean, baina baita baztertuen erantzuna erakustean ere: beharginak, euskaldunak nahiz emakumeak, aldiro oinpean egon arren, behin eta berriz saiatuko dira amets egiten, burua goititzen, etorkizunari aurrez aurre begiratzen.
Liburuaren azalean emakume bi ageri dira, besotik helduta, irribarrez, eta ez da kasualitatea; izan ere, ahizpatasuna baita liburuak transmititzen digun sentipen nagusia.
**Iratxe Ormatza Imatz**, Bakion jaio eta Bilbon bizi den idazleak, *Hegoak* bidaia-kronika argitaratu zuen 2007an, bizkaieraz, eta hauxe du helduentzako narratiban idatzi duen lehenengo liburua.



ARGAZKIA: IÑIGO AZKONA




**PRINTZAK BEGIETAN**
Iratxe Ormatza Imatz
ELKAR

**XABIER MENDIGUREN**
Editorea



BARREN-BARRENEAN

# UMOREZ ETA AMOREZ



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

**Umberto Eco**ren *Arrosaren izena* eleberrian, Jorge de Burgos abade itsuak pozoindu egiten zituen Aristotelesek komediari buruz idatzitako liburu galdu baten orrialdeetako ertzak, barre egitera ausartzen ziren irakurleak orriak pasatzerakoan hil zitezen. Beldurra uxatuz, barreak kalte handia zekarrela uste zuen Jorge agurgarriak, fedeak Jainkoaren beldurra izatea eskatzen duelako. Ez gara hemen arrazoia zuen edo ez eztabaidatzen hasiko, baina ez dakit nik arduratzeko motiborik ote zeukan. Barre egitea kaltegarria balitz ere, ez luke literaturak kalte handirik ekarriko. **Shakespeare**ren lanekin egiten dugun sailkapena onartuko bagenu, literatura unibertsalaren liburutegian leku irrigarria okupatuko lukete komediaren apalek tragediarenarekin konparatuz.

Pena da. Izan ere, arrazoi zuen **Joan Mari Irigoien**ek *Ipuin batean bezala* (Elkar, 2002) eleberri zinez ederrean zera zioenean, "umoreak, izan ere, bizitzari buruzko beste ikuspuntu bat dakar: mugagabea dirudienari bere mugak ezartzen dizkio, epika lirika bihurtuz, eta gizonen balentriak, jainkoak eta ideiarik gorenak –hamaika obelisko bertikalen sorburuan egon izan direnak– irriaren esparru horizontalera ekarriz".

Umoreak humanoak baino ez garela gogoratzen digu, eta geure burua ikusten laguntzen digu, nor garen jakin dezagun, epairik eta zigorrik gabe, gizatasunez, adiskidetasunez, eta maitasunez. Helduntasunaren opari guztietatik umorea da gehien merezi duena, eta egia da ez duela dena konpontzen, baina egiago da den-dena hobetzen duela, apur bat baino ez bada. "Ez naiz fidatzen barrerik egiten ez duen jendearekin", esan zuen **Maya Angelou** poeta amerikar kolosalak, eta umorerik gabeko jendearengan zerbaiten falta larria zegoela **James Joyce** idazle irlandarrak. Bazekien zertaz ari zen, ez baita erraza izango munduko aberrien artean Irlandak baino umore hobea duenik aurkitzerik.

Tradizio anglosaxoiak kapitulu gogoangarriak eman dizkio komediaren biblioteka unibertsalari. Frogarik nahi duenak hor ditu **Shakespeare**ren komediak, **Mark Twain**en umore piezak eta **Oscar Wilde**ren teatro lanak, adibidez.

Tamalez, euskaldunok apenas idatzi dugu ezer komediaren alorrean. Barrearen soinua "kar kar" idazten duen literatura karka xamarra dugu. Idazle gutxi dira komedia egitera ausartu direnak, eta are kritiko gutxiago komediari inolako balioa eman diotenak. Horregatik egiten zuen aldarri "Bufoiak! Bufoiak behar ditugu" **Harkaitz Cano**ren *Neguko zirkua* (Susa, 2005) monumentaleko pertsonaietako batek, gerraren desastreei begira zegoela. Arbasoen artean izan ditugu umorerako gaitasuna zutenak, eta ez edonolakoak. *Harri eta herri* publikatu berri, zera idatzi zuen **Mikel Lasa**k Gabriel Arestiri buruz, "bere baitan daraman bufoiak eman behar ditu (hala espero dut) ustegabeko sustuak eta solasak". **Lizardi**k umore zorrotza zeukan, **Lauaxeta**k sano egin zuen barre geure eta geure literaturaren kontura hainbat artikulutan, eta **Jon Mirande**ren dohain handienetakoa bere umorea zen (*Gauaz parke batean*, Elkar, 1984). Probokatzailea, librea eta beltza, **Joseba Sarrionandia**k eta **Mitxel Sarasketa**k *Hamairu ate* (Elkar, 1985) izeneko umore beltzaren antologian jaso zituzten mundu osoko narrazioak bezainbeste.

Eta ez dira arbasoak soilik. Baditugu idazle garaikideen artean umoredun asko. **Anjel Lertxundi**k Madame Kontxexi Uribe sailarekin erakutsi zuen komediarako bere gaitasuna, **Jon Alonso**k *Amaiur bat urtero* intxantearekin (Ilbeltza, 2022) frogatu du, beste behin, satiriko jeniala dela, eta umore korronte sakonaren senak gidatuta idatzi du **Lander Garro**k bere eleberririk onena (*Faith*, Elkar, 2021).

Gaitasuna, beraz, badugu. Tradizioa da falta duguna eta komediarekiko gure gutxiespena miresmen bihurtzea. Munduarekiko baina ozpindu bat eta distantzia emozional sarri tristeegia ezartzen duen ironiaz haratago, geure buruari barre egiteko benetako umorea izango da geure seriotasunean barregarriegi ez agertzetik salbatuko gaituena. Ezerk salbatuko bagaitu.




ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA



*Proposamena*

**BEGOÑA PRO**
Escritora

## NUMANTIA RESISTE EN LOS EPÍLOGOS DE LA REPÚBLICA ROMANA

Desde la atalaya que él mismo ha mandado construir, **Escipión Emiliano** contempla las ruinas de Cartago. Y sobre el nido de destrucción que sus legionarios dejan tras de sí, además de pensar en el triunfo que va a celebrar en Roma, reflexiona sobre la relajación de los usos y las costumbres; base sobre la que se asientan los cimientos de la República romana.

**Juan Torres** nos adentra en esta novela –continuación de *El senador de Roma*– en la lucha encarnizada por el poder de la aristocracia, que va a convertir el Senado en el lugar donde los patricios dirimen sus terribles ansias de supremacía y control. La terna formada por Emiliano-Fabio-Lelio, enfrentada al trío Claudio-Galba-Nobilio. Ninguno duda en utilizar las leyes en su propio beneficio, interpretándolas según su conveniencia para tapar sus errores o encumbrar a sus partidarios. Y cuando la base sobre la que se asienta todo el mecanismo del estado se tambalea, provoca que el estado mismo peligre. Mientras la dialéctica, venida a menos, parece servir solo para provocar grandes trifulcas senatoriales, la acción militar se traslada principalmente a Hispania, donde un belicoso Viriato tiene en jaque a las tropas consulares y donde, sobre todo, un grupo de celtíberos resiste incólume e incomprensiblemente en Numantia; un poblado de ocho hectáreas donde residen no más de cuatro mil numantinos que durante veinte años han humillado el poder de Roma.

Con un estilo lleno de humor escatológico, Torres nos adentra en la vida de Roma de una manera muy visual, llevándonos tanto a visitar sus costumbres como el engranaje que mueve su gran poder. A pesar de que en ocasiones alguna escena resulta repetitiva, el autor tiene la maestría de presentarnos pasajes de dialéctica admirable, donde los protagonistas brillan con luz propia. Una cita que nos traslada al año 146 a.C. y a la que merece la pena acudir.




**NUMANTIA
LA IRA DE
LOS ESCIPIONES**
Juan Torres Zalba
LA ESFERA DE
LOS LIBROS

*Profila* PÍO BAROJA

## EL MAR DE LOS VASCOS



**JAVIER SÁNCHEZ-BEASKOETXEA**
Profesor de Náutica
en la UPV/EHU y escritor

La literatura del mar en lengua castellana tiene un nombre propio destacado. Hace poco se han cumplido 150 años del nacimiento en San Sebastián del escritor **Pío Baroja**. Baroja es, sin duda alguna, el narrador en castellano que mejor plasmó la vida de los marinos del pasado reciente. Shanti Andía, Ignacio Embil, el capitán Chimista… ¡Qué de recuerdos de juventud me traen estos nombres! Mentiría si no dijera que uno de los motivos de matricularme en la Escuela de Náutica de Portugalete fue la lectura compulsiva de su tetralogía del mar. Ni sé las veces que pude releer *Los pilotos de altura*. Aventura en estado puro. Me salpicaba el salitre cada vez que pasaba una página mientras soñaba en surcar los mares capitaneando una tripulación de vascos decididos y valientes.

**Pío Baroja** convirtió todos los océanos del mundo en el mar de los vascos. En cualquier rincón de cualquier mar podías oír el grito desafiante de "¡Éclair! ¡Éclair! ¡Adelante! ¡Adelante! ¡Hurra!". Y con tan solo oírlo, ya estabas presto a la aventura. Por allí asomaban marinos vascos listos para la acción. Aunque a veces se mostraban taciturnos, apagados, casi como si su trabajo en el Mar de la China fuese la labor de un funcionario. Pero así son los personajes barojianos. Contradictorios, como cualquier persona real. Leer las obras de **Baroja** es sentarte en el "Guezurrechape de Cay luce" y escuchar las conversaciones de los marinos viejos. Aunque también retrató muy bien la vida de los habitantes de Madrid o de otras ciudades. Se podría decir que tenía un don para dar en unas pocas pinceladas de cada personaje y de sus relaciones con los demás una idea de cómo era la gente de entonces. **Baroja** era médico, sí, pero entendía más de las almas que de los cuerpos. Qué placer recordarlo.

DESDE 7'95 €
BOLSILLO
es mucho más en
elkar
POLTSIKOAK
gehiago
ematen dizu
Penguin Random House Grupo Editorial
www.penguinlibros.com
@PenguinLibros




Disponible
audiolibro
ebook
DEBOLSILLO
DEBUTXACA
PENGUIN CLÁSICOS
B DE BOLSILLO
SALAMANDRA BOLSILLO
rocabolsillo



FOTOGRAFÍA: GORKA NALDA

> “El asesino que he creado está profundamente marcado por una fe inflexible que no perdona los pecados”

# IBON MARTÍN



**EL LADRÓN DE ROSTROS**
Ibon Martín
PLAZA & JANÉS

**En la portada de *El ladrón de rostros* reina la imagen de un bosque verde intenso. Al abrirla, nos encontramos con un mapa, preludio de la nueva propuesta de Ibon Martín: un viaje por los valles y los secretos que rodean el santuario de Aranzazu. Una odisea repleta de emociones y suspense, cuyo punto de partida es un abominable crimen con visos de ritual atávico. Vuelve la inspectora Ane Cestero, y con ella la fascinante inquietud que son capaces de crear las buenas historias de intriga.**

**Ha dejado el salitre, las olas y las gaviotas para adentrarse en los valles del interior de Gipuzkoa. ¿Cómo ha llegado a esos lugares?**
La historia que quería contar precisaba de un paisaje sin horizonte, un lugar escondido entre montañas que le hayan permitido llegar a nuestros días sin grandes cambios. En los valles que rodean Oñati y que sirven de escenario a *El ladrón de rostros* perduran viejos mitos y rituales que se han perdido en gran parte del país. Tanto el tiempo en el que transcurre la novela, en el segundo año de la pandemia, como el lugar elegido, no son fruto del azar. Eran indispensables para la trama. Me ayudan a dibujarla y a que el lector sienta el desasosiego y el aislamiento desde la primera página.

**En la novela hay muchas referencias ancestrales que nos llevan a un imaginario de temor, respeto, historia y rituales.**
Es un imaginario que aún sigue muy arraigado en Euskal Herria. Quise convertirlo en un elemento central, con mucha fuerza en la historia, y por eso decidí llevarme la novela al interior, alejarla de la costa. En *El ladrón de rostros* podemos sentir la presencia de seres mitológicos en nuestras montañas, en las que todavía se practican rituales que nos conectan con la noche de los tiempos, como ese rito de fertilidad que se practica en la oscuridad de la cueva de Sandaili. Comenzar la novela con un crimen en un lugar tan especial me pareció la mejor declaración de intenciones, la mejor forma de expresar que, en tiempos tan oscuros como los que acabamos de vivir, el ser humano se aferra a la necesidad de creer en algo. Esa fragilidad, esa búsqueda de respuestas, es uno de los motores de sus páginas.

**También hay arte, y religión.**
La religión está muy presente. En la novela nos enfrentamos a su rostro más oscuro, porque el asesino que he creado está profundamente marcado por una fe inflexible, que no perdona los pecados y que ve señales por todas partes que alimentan su obsesión. Esa obra maestra que es el arte religioso de Oteiza da alas a su imaginación hasta convertirse en la firma de los crímenes del Apóstol. Pararse frente a ese increíble friso de piedra descarnada a observar las figuras del friso de la basílica de Arantzazu ha sido todo un regalo para estas páginas.

**¿Cuesta mucho crear un villano verosímil?**
La creación del asesino es la parte más interesante a la hora de escribir una novela, pero también la más dura. En *El ladrón de rostros* el lector se encuentra con capítulos escritos desde su punto de vista. Para escribirlos he tenido que intentar que mi mente piense como lo haría la de un asesino que siente que está haciendo lo correcto, que tiene una misión que cumplir. Eso implica ponerse en su piel, comprenderlo y empatizar con sus emociones para poder construir un personaje creíble y atractivo. Es bastante turbador, la verdad.

**TERESA SALA**
Periodista

La entrevista completa:
https://bit.ly/elladronderostros



# ETXE BERDEA

Iazko udazkenean argitaratu zuen Ereinek *Etxe Berdea*, **Andoni Agirrezabala Izagirre**ren (Alegia, 1998) lehenengo eleberria. Liburuak bigarren inprimatzea lortu du denbora gutxian.

**Misteriozko nobela da *Etxe Berdea*…**
Betidanik atentzioa eman dit misterioak, horregatik istorioaren ardatzean egotea nahi nuen. Gertakari nagusiaren baitan egongo da, orrialdez orrialde argitzen joango den kasu tragikoaren muinean. Baina agertuko da ere deskribapenetan, edo pertsonaien jokaeretan eta hitzetan; hain zuzen, egunerokotasunetik gertuago egon litezkeen egoeretan. Errealitateak asko du misteriotik, hein batean hori islatzen saiatu naiz.

***Found footage* teknika erabili duzu.**
Liburua, bere osotasunean, gertakari tragiko baten inguruko ikerketaren emaitza da, testigantza multzo batez osatutako karpeta bat. Irakurleak karpeta hori aurkitu du eta irakurtzen hasiko da barrukoa deskubritzeko.

**Herriko hainbaten testigantzak irakurriko ditugu. Zein da zure pertsonaiarik gustukoena?**
Pertsonaia guztiak dira elkarrekiko nahiko ezberdinak. Hilerriko langile bitxi bezain bihozbera den Lukas aipa nezake, edo bestela, Aintzane, gazte kuadrilla gorabeheratsu bateko kidea. Kutunena, ordea, Sara dut, egoera latzetan ere distira ateratzen duen neskatoa. Saiatu naiz denek esateko zerbait izan dezaten.

**Zein zailtasun topatu duzu idazketa prozesuan?**
Liburuaren hasieran azaltzen den moduan, testiguek beraiek idatzi dituzte testigantzak. Ikertzaileak testuak bildu eta atondu ditu, pertsonaien hitzak osotasunean errespetatuz. Hori sinesgarria izan dadin, beharrezkoa da pertsonaia bakoitzak ahots propioa izatea, bere esamoldeekin, bere estiloarekin. Ahotsak bereizte horretan izan dut lan gehien.

**Misteriozko nobela da, baina badu zerbait sobrenaturalismotik ere.**
Sobrenaturalismoak garrantzia handia du istorioan, edo izan dezake, behintzat. Hori irakurleak erabaki beharko du.




**ETXE BERDEA**
Andoni Agirrezabala Izagirre
EREIN

# LA MENTALIDAD TRÁGICA




**LA MENTALIDAD TRÁGICA**
SOBRE EL MIEDO, EL DESTINO Y LA PESADA CARGA DEL PODER
Robert D. Kaplan
RBA

Más allá de cualquier conocimiento técnico o fríamente analítico, los clásicos de la literatura –y especialmente la tragedia–, nos pueden ayudar a comprender el mundo. Los dramaturgos griegos o Shakespeare nos muestran los riesgos que se corren ante una decisión importante, la sabiduría que se adquiere ante los errores trágicos, la inevitabilidad del destino y cuán difícil también es gobernar.

Quien no haya sufrido una experiencia traumática con la guerra o con la muerte se hará mejor una idea sobre ellas leyendo una tragedia antes que siguiendo cualquier metodología científico-social. Eso es lo que **Robert D. Kaplan** plantea en este ensayo breve, ameno y delicioso. Todas aquellas personas que quieran aprender de sus errores y adquirir un temor sabio, encuentran en la gran literatura trágica todo lo que necesitan.

Resulta especialmente importante cuando se ejerce el poder. **Kaplan** habla de las equivocaciones, el destino y el conocimiento adquirido de Edipo, de Antígona, de Lear, de Macbeth y de tantos otros personajes literarios trágicos. Pero luego le da una vuelta de tuerca y también los compara con líderes actuales como **Vladímir Putin** (rodeado de subordinados que le temían y que no discutían con él antes de invadir Ucrania), **Donald Trump** (y la debilidad de un sistema estadounidense que permitió que subiera al poder), **Joe Biden** (y su meditada decisión de retirarse de Afganistán), **Churchill**, **Sadam Huseín** y **Eisenhower**, entre otros.

Tras una carrera periodística brillante, en la que supo anticipar conflictos que apenas nadie imaginaba, **Robert D. Kaplan** se convirtió en un referente geopolítico. Pero él mismo reconoce que sus capacidades analíticas se enriquecieron con la lectura atenta de los clásicos. Sin ellos, cometió errores graves que podía haber evitado. Este es el camino que nos enseña en este libro, que no es un ensayo literario, sino vital.



# LA SECTA

## El nuevo éxito de CAMILLA LÄCKBERG y HENRIK FEXEUS

Café rápido, peluquería y maquillaje, entrevistas para los medios españoles, sesión de fotos, grabación de vídeos para la campaña digital, nueva entrevista, breve pausa para comer, firma de libros, nueva grabación de vídeos, más fotografías y nueva tanda de entrevistas, ahora para los medios daneses. Esta es la frenética agenda de un solo día de promoción de *La secta*, la última novela de **Camilla Läckberg** y **Henrik Fexeus**. La extenuante jornada a la que he tenido el privilegio de asistir se desarrolla en el maravilloso hogar donde la autora sueca pasa largas temporadas, situado en el archipiélago más salvaje de Estocolmo, y ambos autores participan con energía y profesionalidad, haciendo gala de un envidiable buen humor.

Tras el éxito mundial de *El mentalista*, publicada el pasado año, presentan ahora *La secta*, también en Editorial Planeta, la segunda entrega de una serie protagonizada por la policía Mina Dabiri y el mentalista Vincent Walder, quienes se verán de nuevo envueltos en una brutal investigación, plagada de códigos numéricos y mensajes en clave, que atrapa desde la frenética escena inicial.

**Camilla Läckberg** es, sin duda, la reina de la novela negra. Con más de treinta millones de ejemplares vendidos en todo el mundo y publicada en más de sesenta países, es un fenómeno literario global. Los medios la apodan “la Agatha Christie sueca” y confirman que “nadie mata mejor”. Y es cierto. En *La secta*, junto con el experto mentalista y gran amigo **Henrik Fexeus**, despliega un juego de pistas e indicios que, a la vez que va dejando varios asesinatos por el camino, no da respiro al lector en ningún momento.

En esta maratoniana jornada de entrevistas la conexión entre los dos autores es total —se terminan mutuamente las frases—, una maravillosa sintonía que despliegan en esta nueva aventura para describir el plan homicida de una mente perversa. Mina, Vincent, Peder, Christer, Ruben y Julia, los integrantes del departamento de homicidios de la policía de Estocolmo, nos acompañan de nuevo en estas más de setecientas páginas de *thriller*, misterio y novela negra a partes iguales.

En este 2023 se cumplen veinte años de la publicación de la primera novela de **Camilla Läckberg**, *La princesa de hielo*; dos décadas después, sigue deleitando a millones de lectores en todo el mundo con cada una de sus obras. Desde estas páginas le deseamos, de todo corazón, otros veinte años de fantástica cosecha literaria.




**LA SECTA**
Camilla Läckberg · Henrik Fexeus
PLANETA

**MÍRIAM VALL**
Editora de Ficción Internacional – Editorial Planeta



# PANTAILEN GARAIPENA




**PANTAILEN GARAIPENA**
**BEGIRADAREN TOTALITARISMOAREN KONTRA**
Iñigo Martinez Peña
ELKAR

**Iñigo Martinez Peña**k begi zorrotza duela esan nezake eta gure gizartearen argazki izugarria eskaintzen digula, baina nahiago dut esan usaimen fina duela. Eta ezin uka: usain txarra du bizi garen gizarteak.

*Pantailen garaipena* liburuan aurrera egin ahala, kiratsa: botereak erabat garden nahi gaitu, boterea bera sekula garden izango ez den arren; kaleak eta lanpostuak bideozaintzaz beteta dauzkagu eta etengabe zelatatzen gaituzte; nahiago dugu GPSari itsatsita egin bidea, bila gabiltzana non dagoen ingurukoren bati galdetu baino; kaleak gehiegi argiztatzeak loaren kalitatean eragiten digu, besteak beste; paisaia edo leku berri batera iritsita, hura argazkietan jasotzen tematzen gara, momentua disfrutatzea ahaztuta; giza jokabideen determinismoa aurreikusten ahalegintzen gara, erabakiak hartzeak dakarren erantzukizunak izututa-edo. Kaleidoskopio zoro batean bizi gara.
Liburuko lerroetan ez dago, ordea, galdutako paradisuen nostalgiarik, iragandako garaietara itzultzeko gogorik: garai guztiek dituzte beren argi-ilunak, beren lurrin eta kiratsak. Hauxe da guri egokitu zaiguna. Gakoa begirada aztertzea da, eta aldatzea: nola egin bizigarriago bizi dugun mundu hau? Nola berreskuratu, begiaz harago, gorputz osoa? Nola lortu komunitatearen indarra? Ahazteko eskubidea? Etorkizun posible guztiak irudikatzekoa? Nola urratu erabakien eta erantzukizunen bideak? Konfiantzarenak? Nola jarraitu elkarrizketan?
Eta, hara, Iñigoren usaimen fina, berriz: jolastu gaitezen ezkutaketan, sortu ditzagun eremu ikusezinak, onar dezagun arrotza, ulertezina, enigmatikoa. Itxi ditzagun begiak pixka batean, hobeto ikusteko.
Kiratsak kirats, *Pantailen garaipenak* leiho bat zabaltzen digu, eta mundua egurasten.

**OLATZ MITXELENA LARRETA**
Idazlea

# LUR GAINEAN, ITZAL AZPIAN




**LUR GAINEAN, ITZAL AZPIAN**
**EMAKUME NEKAZARIAK ETA PARTE HARTZEA**
Leire Milikua Larramendi
SUSA

Argia. Fokua. Ikusgarritasuna. Aitortza. Bai, horiek guztiak behar dira existitzeko, ikusiak izateko, eta, hala, eragin ahal izateko. Alabaina, hori da patriarkatuaren ezaugarrietako bat, emakumeen gaineko itzala. Eta hori da zeharkatzen gaituen sistema. Liburu honetan emakume nekazarien parte hartzearen egoera gerturatzea da asmoa: batetik, erakusteko emakumeek sistema patriarkaleko edozein arlo eta eremutan dituzten egiturazko ezaugarriak partekatzen dituztela; eta, bestetik, ikusarazteko nola landatar eta nekazari izaerak zapalkuntza-geruza gehigarriak dakarzkien testuinguru urbanozentrista eta kapitalistan. Lurretik urrundu egin gara. Literalki eta metaforikoki, askotan, lur horrek inguratuta egonagatik ere. Duela gutxira arte, lurrean, landa-eremuetan kokatzen zen jaten ziren elikagaien sorrera. Bazegoen ezagutza bat horiek nola sortuak ziren, eta, eskuarki, nork sortuak ziren. Ezinbestean tokikoak ziren elikadura-sistemak mundu mailako bilakatu zirenean, distantzia fisiko hori distantzia mental bihurtu zen. Eta, areago, distantzia emozional.
Baina zergatik dago landa-eremuarekiko, haren konplexutasunarekiko eta bertakoekiko halako ezezagutza? Eta zergatik da landa-eremuko emakumea hain subjektu irristakorra, hain heldulekurik gabea gure gogamenetan?
**Leire Milikua Larramendi**ren liburuaren helburua bat da: landa-eremua, nekazaritza-sektorea eta bertako emakumeak irakurleari gerturatzea kokatzen direneko egiturazko markoak agerian jarriz, datuak jakitera emanez, beraien hitzak jasoz. Balio dezala gure begirada argitzeko, zabaltzeko, eraldatzeko; eta liburuek duten gaitasun garraiatzailearen bitartez, kontatutakoak mintzagai bihurtzeko.



# ENEKO BIDEGAIN



**Hemezortzi urteren ostean itzuli da Eneko Bidegain Aire (Baiona,1975) literatura mundura. Tartean hainbat saiakera idatzi ostean, *Bichta Éder* izeneko eleberria kaleratu berri du; gogoetarako bidea ematen duen misterioz zein intrigaz beteriko istorioa. Eleberri honetan, gaztelu baten atzealdean zer dagoen argitu nahi da, hari-muturren arkitektura perfektu batez baliatuz.**




**BICHTA ÉDER**
Eneko Bidegain
ELKAR

**Berezia da eleberriaren izenburua eta ortografia. Zergatik titulu hau eta zergatik horrela?**
Izenburuak eman dizkit nahikoa buruko min. Ortografia zen zalantza sortzen zidana liburuari izenburua ematerako garaian. Eleberriaren muina izenburuan dago: *Bichta Éder* izenburuak, erreferentzia egiten dio itxurari ematen diogun garrantziari eta azpian gordetzen dugun horri. Honekin adierazi nahi nuen edertzen dugula errealitatea komenentzia batzuen arabera. Itxurakeriaren zama hau, gazteluaren historian, proiektuan eta pertsonaia ia guztietan islatu dut. Erakutsi nahi dugun hori ez da besterik gabe erakutsi nahi dugulako, baizik eta, gizarteak behartzen gaituelako modu batera jokatzera ingurune batean edo bestean. *Ch*-aren erabilerak, berriz, erreferentzia egiten dio gaur egun euskarari egiten zaion trataerari; Ipar Euskal Herrian euskara nola tratatzen den euskaldunak ez direnen partetik, euskara gutxiesten eta zapaltzen dutenen aldetik. Eleberri honetan gai hau ere aipatzen da, zer den euskaldun zapaldu, gutxietsi, mespretxatua izatea Ipar Euskal Herri osoan. Euskara turismo sektorean oso modu instrumentalean eta interesatuan erabiltzen da, erabiltzekotan.

**Istoria, hausnarketa anitz eta sakonak izateaz gain, hainbat pertsonaiarekin osatutako plan perfektu bat ere badela esan genezake. Dena harilkatzen da, dena da joste prozesu perfektua.**
Niretzat garrantzitsua zen hari-mutur guztiak momentu batean gurutzatzea, eta aldi berean, intriga bat sortzeko nahikoa hari behar dira. Zailtasuna zer da? Bada, hari-mutur guzti horiekin irakurlea ez deskonektatzea, eta aldi berean, irakurleari jakin-min horiek guztiak piztea. Esan bezala, hari-muturrak asko dira, baina altzari bat muntatzean pieza bat kentzen baduzu, altzaria ez da egongo zutik. Irakurleak eleberri hau irakurri nahi badu, nahiko epe motzean irakurri beharko du. Ez da istorio bat orain hasi eta hemendik hilabete batera bukatzeko, gauza asko galtzen ahal baitira bidean. Intriga eleberrietan hori gertatzen da: hauek jarraian irakurri behar dira, eta nik apustu hori egin dut istorio honekin.

**Nola deskribatuko zenuke eleberri hau?**
Eleberri hau kutsu politikoa duen intriga bat dela esango nuke, gogoetarako bidea ematen duena. Ez da intriga huts bat, gogoeta soziala eta politikoa ere egiten baitu, besteak beste. Gogoeta ardatz duten liburu askok ez dute intriga hari gisa. Eleberri honen kasuan, biak batu nahi nituen.

**SARA IRIARTE LASA**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**https://bit.ly/enekobidegain**




# LIBROS Y SERIES

**Hay quien piensa que las series actuales han sustituido a la novela y al cine como "literatura popular". Quizás tengan razón, pero lo cierto es que muchas de esas series siguen bebiendo de novelas y libros de éxito.**

**Nick Pizzolatto**, novelista (*Galveston*) y aclamado guionista de la primera temporada de *True Detective*, aseguró hace unos años que en Estados Unidos "las series son la nueva literatura popular". Ex-profesor universitario de literatura, confesó que "hacia 2002-2003, cuando HBO se puso a difundir *Los Soprano*, *The Wire* y *Deadwood*, tomé realmente conciencia de que esas series saciaban mi hambre de ficción de manera más plena que las propias novelas".

Quizás **Pizzolatto** acierte en el diagnóstico. Sin embargo, son legión las series nacidas de libros, sobre todo, pero no solo, de novelas. Algunas de las más exitosas aún perduran en nuestra memoria, desde el mítico *Yo, Claudio*, creada por la BBC en 1976 a partir de las novelas de **Robert Graves**, hasta recientes aldabonazos como *Juego de Tronos*, nacida de la literatura de fantasía heroica de **George RR Martin**, o el incombustible *Comisario Montalbano*, serie de la RAI en la que **Luca Zingaretti** ha interpretado durante veintidós años (1999-2021) al popular personaje de las novelas y relatos de **Andrea Camilleri**.

Y la tendencia, a día de hoy, no parece agotada. Sendas novelas de éxito de la irlandesa **Sally Rooney** han originado otras tantas series en los últimos tiempos. *Conservaciones entre amigos* (2017) se convirtió en una miniserie sobre su singular cuarteto de personajes jóvenes y adultos. En 2020 *Normal People*, también de una temporada, recreó la complejas relaciones entre dos jóvenes de la aplaudida novela vertida al euskera (*Jende Normala*) y al castellano (*Gente Normal*).

Desde 2014 la serie *Outsider* ha bebido de la saga de novelas homónima de la estadounidense **Diana Gabaldon**, traducida al castellano como *Forastera*, en las que la protagonista viaja en el tiempo al siglo XVIII. Dentro del mismo género de la novela romántica, Netflix estrenó a finales de 2020 *Bridgerton*, basada en los títulos superventas que Julia Quinn viene dedicando a la alta sociedad londinense de comienzos del siglo XIX.




Entre las propuestas distópicas, destaca *The Handmaid's Tale* (2017-2023), el país totalitario imaginado por **Margaret Atwood** en su novela del mismo título, traducida al euskara (*Neskamearen ipuina*) y al castellano (*El cuento de la criada*).

En el ámbito del *thriller* policíaco, *Babylon Berlin* (desde 2017) es una producción alemana que toma como punto de partida las novelas de **Volker Kutscher** protagonizadas por el detective Gereon Rath, como *Muerte en Berlín*. Son los años de la república de Weimar, el final de los felices 20 y el ascenso del nazismo. En Italia, *Rocco Schiavone* (2016-2021) lleva a la pantalla al subcomisario de los libros de **Antonio Manzini**, un policía con serios problemas con la ley.

No podemos terminar sin citar otras series que han obtenido notable prestigio aunque quizás menos repercusión mediática, como *The Terror* (2019), basada en el libro de **Dan Simmons** *El Terror*, que recrea con elementos paranormales la expedición del capitán John Franklin al Ártico en 1845, o, sin abandonar ese tipo de literatura, *La maldición de Hill House* (2018), adaptación de la novela homónima de **Shirley Jackson**.

**TOMÁS ZABALLA**
Kazetaria



# AhOBETEhORTZ,
## KRISTONAK BIZIRIK DAUDE

Berpiztea ez da kontu erraza izaten, baina batzuetan, batez ere musika arloan, gertatzen da. Arratiar batzuei suertatu berri zaie, adibidez. **Eskean Kristö** zirenak orain, pandemia osteko garai nahasi hauetan, **Kristonak** direla itzuli dira. Eta horrelakoxeak direla erakusteko, *Ahobetehortz* diskoa kaleratu dute CD eta biniloan.

“Oraindik ere bizirik gaude”, hasten da arratiar bandaren disko berria. Rokanrol kementsu eta alaia da lan berriko zortzi kantuen oinarria. Eurek “gordin eta ganberro” esaten diote, “horixe atera zaigu”, xalo-xalo aitortu aurretik. Jarrera positibo eta alegera hori azpimarratu beharrekoa da, pandemia luze eta etsigarrian taldea kinka larrian egon zelako, desagertzeko aukera ere mahai gainean jarrita.

Zorionez, desagertu beharrean, izena aldatu eta, lau haizetara zabaldu duten bezala, “Kristöri eskean ibiltzetik Kristonak izatera pasatu gara”. Esaten dutena erabat sinistuta, disko berria grabatu eta cd zein biniloan plazaratu dute. *Ahobetehortz*en zortzi abesti sartu dituzte, hasi *Bizirik gaude* esanguratsuarekin eta *Boilurra*-rekin amaitu. Tartean daude kolaborazio bereziak bildu dituzten *Mooggie-Booggie* (**Niko Etxart**), *Hauxe da mementua* (**Roberto Moso**), *Gora Euzkadi ataskatuta!* (**Jose Mari Bizardun**) eta *Ontziak sutan* (**Aiora Renteria**), besteak beste.

Disko dibertigarria eta gozagarria, alaia eta ongi josita. Rokanroletik abiatuta, bestelako eraginei ateak parez pare zabalik ehundu dute. Eta rokanrolaren ezaugarria izanik ez dela inoiz hilko, jakin ezazue Kristonak hemen direla berriro. Edo, eurek esaten duten bezala, “bueltan gaude, madarikatuok!”.




**AhOBETEhORTZ**
Kristonak
ELKAR

---

# BELAR HOSTOAK,
## ITZULERA




**BELAR HOSTOAK I & II**
Walt Whitman · Txomin Artola
ELKAR

Gure musikaren historian letra handiz idatzitako diskoetako bat da, zalantzarik gabe, *Belar Hostoak*. **Txomin Artola**k 1978an ondu zuen **Walt Whitman**-en olerki sortaren itzulpen musikatua. Orain Elkarrek jatorrizko diskoa berrargitaratu du eta, harekin batera, **Urbil Artola** buru duen musikari talde batek egin duen berrinterpretazioa.

*Belar Hostoak* kaleratu zuenean, **Txomin Artola**k apustu ausarta egin zuen: XIX. mendeko estatu-batuar idazle baten poemategia hartu eta kantu bihurtu, euskaraz. **Walt Whitman**en *Leaves of Grass* liburutik erauzi zituen abestiok, giro intimista darion disko batean txertatzeko. Lirismoz blai egindako diskoa osatu zuen hondarribiarrak, bakeari, askatasunari eta justiziari gorazarre hutsa. Abentura hartan bidaide Errobiko kideak eduki zituen: **Mixel Ducau**, **Jean Phocas**, **Beñat Amorena** eta **Robert Suhas**. Emaitza bikaina izan zen, *Baserriko ate zabalak*, *Arristiria hondartzan* edo *Abereen artean* bezalako kantu ederrei esker, besteak beste.

Orain **Elkar**rek jatorrizko diskoa bermasterizatuta plazaratu du. Baina 1978ko harribitxi hori ez dator bakarrik. Iazko Loraldia jaialdian diskoa berpizteko kontzertua egin zuten hainbat musikarik Bilboko Bidebarrieta Kulturgunean. **Jon Gurrutxagak** ahotsa jarri zuen eta harekin batera **Antxon Sarasua**, **Andoni Etxebeste**, **Dani Venegas**, **Jon Arzelus** eta **Urbil Artola** igo ziren oholtzara. Saio hartarako egindako moldaketak estudioan grabatu eta diskoa osatu dute musikariok.

Hortaz, argitalpen honetan disko bi datoz batean: 1978ko jatorrizkoa eta 2022ko berrinterpretazioa. Horixe izaten baita lan hilezkorren patua, behin abiatuta geldiezinak direla.



elkar fundazioa

# elkar taldeak jaso du Gipuzkoako 2022ko Urrezko Domina

Gipuzkoako Foru Aldundiaren bereizgarri gorena elkar Taldeak jaso zuen iaz. Era horretara aitortu nahi izan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak **elkar** Taldeak “mende erdian zehar, euskara eta euskal kultura sustatu eta garatzeko egindako lana”

Pasa den abenduaren 16an, Gipuzkoako Foru Jauregian egin zen ekitaldi instituzionalean jaso zuen Urrezko Domina Joxemari Sors **elkar** Fundazioko lehendakariak Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiaren eskutik.

Ana Urkiza idazle eta Eusko Ikaskuntzako lehendakaria denari egokitu zitzaion **elkar** Taldearen *laudatio*-a egitea eta aforismoetan oinarrituta egin zuen. “50 urte Ametsa zeharkatzen” izenburua jarri zion bere hitzaldiari, “**elkar** Taldeak ez ezik, literaturak ere ametsak hezur-mamizko bilakatzeko ahalmena duelako”. *Pospolo txiki baten argiak inguruko iluntasun handia ikusteko balio du* aforismoarekin abiatuta honela irakurri zuen idazleak urteotan lortutakoa: “**elkar** Taldeak lortu du duela 50 urte Joseba Jakak piztu zuen pospoloa piztuta mantentzen; herriaren ezagutza premiei eta hutsuneei, garaian garaikoei, erantzuten; merkatuaren aldaketak eta mehatxuak gainditzen… **elkar** Taldearen helburu nagusia euskara eta euskal kultura sustatzea izan da eta da, euskaraz pentsatu eta bizi nahi duen herri bat bilakatu gintezen; gure seme-alabak euskaraz hezi genitzan; Euskal Herri bateratu baten irudia eraiki genezan; eta gure bizitzako doinurik esanguratsuenez lotara gintezen.

**elkar** Taldeak, pospoloari piztuta iraunarazteko enpresa sarea antolatzeko bisioa izan du, pospoloak piztuta irauteko beharrezkoa zen enpresa-egitura definitzen; merkatuari begiratzen eta egokitzen. Eta pospoloaren argia handiagotuz, inguruko iluna ezabatzen.”



Urkizaren hitzetan, ametsetik ez dugu zertan esnatu, jarrai dezagun ametsa bizitzen: *bizitza amestea da; esnatzea da hiltzen gaituena.*

Domina jasota, Joxemari Sorsek, erabat emozionatuta, eskerrak eman zituen **elkar** Fundazioaren izenean, azalduaz saria **elkar** Taldea osatzen duten guztien izenean jasotzen zuela, eta oso zoriontsu egiten zuela, bere ustez “domina hau urtetan ahalik eta ondoen egindako lanaren ondorio delako”. Gaur egun **elkar** Taldea denaren sortzaile izan zen Sorsek Mikel Esnal zuzendari kudeatzailearen esku utzi zuen **elkar** Fundazioaren izenean egin beharreko hitzaldia, **elkar**-en kudeaketa hartua duen taldeari hitza emateko “beraiek baitira gaurko eta etorkizuneko kudeatzaileak”.

Esnalek ere eskerrak eman zituen eta gogora ekarri zituen proiektuaren oinarriak jarri zituzten sortzaileak: “asko dugu haiei aitortzeko. Joseba Jakak eta Joxemari Sorsek, Jaka anaiek, Sors anaiek, Jose Inazio Lizarragak eta beste askok kulturarekiko zuten bokazio hura enpresari izateko bokazioarekin uztartu izana, eskuzabal jokatuz, emankorra izan da euskaldunontzat”. Berrogeita hamar urteko ibilbidea gogoratu zuen eta garai berean herrigintzan egindako lana bai herri ekime-



netik bai erakunde publikoetatik: "elkar-en sorrera, belaunaldi eta garai baten emaitza da, eta elkar-en antzera, hezkuntza, euskalduntze-alfabetatze, hedabide eta kultur alorreko beste hainbat herri ekimen ere bai. Guztiak, ondoren etorritako belaunaldien kontzientzia ernatzeko eta konpromiso berriak elikatzeko ekimen baliagarriak. Euskaraz bizitzeko moduak egikaritzeko beharrezkoak. Indar eraldatzaile eraginkorrak, erakunde publikoen ekimenarekin batera. Taldeak dituen erronkak gogoan hartuta, lankidetzan jarri zuen indarra "esperientziak erakutsi digulako eragileen arteko lankidetza indar biderkatzailea dela, indarrak bateratuta eta elkar lagunduz egin dezaketela aurrera euskal kulturak zein euskal kulturgintzako eragileek". Duela 50 urteko izpirituari jarraitzeko intentzioa azaldu zuen: "Kultur proiektu ahalik eta sendoena egikaritzen jarraitu beharra dugu. Kultura norbanakoen ongizaterako eta komunitate jantzi, justu, aurrerakoi eta demokratikoago baterako giltza dela ulertu behar dugu, etorkizuneko euskal gizartearen balio-eskalan merezi duen lehentasuna izatea bultzatuz".

Hitzartzeak amaitzeko, Markel Olanok hartu zuen hitza eta zorionak ematearekin batera sariaren zergatiak azaldu zituen. Alde batetik, azpimarratu zuen euskara eta euskal kulturari egindako ekarpena: "elkar Taldeari Gipuzkoako Urrezko Domina ematean, euskararen eta euskal kulturaren zabalkundean egindako lan nekaezina saritzen dugu. Aitortzen dugu, bost hamarkadaz dagoeneko, gure hizkuntza garatzen eta euskal kultura sustatzen egindako ahalegin erraldoia; errekonozitzen dugu, modu eraginkorrean eta eredugarrian, Gipuzkoari eta Euskal Herriari egindako ekarpen erabakigarria". Bestetik, kultura eta ekonomiaren artean erakutsitako lotura: "Erakutsi duzue, gainera, kulturgintza eta euskalgintza ere gure ekonomiaren motor garrantzitsu direla. Gure herrian kultura ere industria izan daitekeela eta, ez hori bakarrik, beharrezkoa dugula industria eta enpresa izatea.

Ekitaldia osorik ikus daiteke hemen:



Gizarte kohesiorako funtsezkoa den ekonomia sozialaren balioetan oinarrituz egin duzue, gainera; berdintasuna, partaidetza, berrikuntza eta lankidetza oinarri hartuta." Eta bukatzeko bere konpromisoa azaldu zuen: "Gaurko ekitaldia probestuz, nire konpromisoa erakutsi nahi dut elkarlan horretan sakondu eta pauso berriak emateko. Gure herriak eta hizkuntzak, euskal kulturgintzak, bizi dituen gabezia eta desafioei, lankidetzatik ekin eta apustu berriak egiteko konpromisoa."

Ekitaldi instituzionala ez zen hitzartzeetara mugatu, eta bertan izan ziren gonbidatuek bi sortzaile handiren hitz eta kantuekin gozatzeko aukera izan zuten: Oihana Iguaran bertsolariak hitza jarri zien Artemanek elkar-en kultur ekarpena erakusteko bildutako irudiei; eta Eñaut Elorrietak bere kantuak eskaini zituen.

# EUSKAL HERRIA
## UN PAÍS LIBRO A LIBRO









La colección Euskal Herria inicia su décima temporada con importantes novedades y con media docena de títulos que, una vez más, harán las delicias de quienes quieren conocer y amar este pequeño país. Durante 2023 verán la luz dos parques naturales, una ruta por toda la costa vasca, recorridos para avistar aves, viejas cañadas pastoriles…, en definitiva, una invitación a conocer el país de libro en libro.

En 2021 la colección Euskal Herria mudó su piel gracias a la completa renovación de su diseño tanto en la cubierta como en el interior. La transformación dotó a los libros de un aspecto más atractivo y moderno que fue valorado positivamente tanto por los profesionales como por el público lector. Además, introdujo en los contenidos cambios destinados a aumentar el interés de cada libro. Todo ello sin perder las señas de identidad que han hecho de la colección un referente insoslayable.

En 2023 ha dado un nuevo paso adelante con la publicación, por vez primera, de un título en dos idiomas, castellano y euskera. Se trata de *Parque natural de Aiako Harria y Jaizkibel*, cuyo autor es **Mikel Arrizabalaga**. Este pequeño paso pretende ser el primero de muchos más. En los próximos años la colección alumbrará más libros en euskera.

Si el primer libro del año está dedicado a un parque natural, el de Aiako Harria, único macizo granítico del país, el tercero (que verá la luz en mayo, de la mano de **Mar Ramírez** y **Juan Carlos Muñoz**) también se ceñirá a otro espacio protegido: el parque natural de Armañón, en Karrantza y Turtzioz (Bizkaia). En ambos casos, las rutas propuestas desbordan los límites de los parques e incluyen espacios, igualmente protegidos, de gran interés natural, paisajístico y montañero: el macizo de Jaizkibel, en el caso de Aiako Harria, y los montes de Ordunte, en el libro del parque natural de Armañón.

El segundo título de este año (marzo) también tiene un marcado cariz montañero, pero en este caso nos conduce hasta las cimas por viejas rutas ganaderas. Se trata de *Cañadas y senderos de pastores*, de **Txusma Perez Azaceta** y **Sara Carte Moriones**, un libro que propone veinticinco ascensiones por coladas y veredas que conducen a los pastos de altura. Una manera diferente de acometer nuestras salidas montañeras y una invitación a conocer y degustar los productos de la cultura pastoril, comenzando, cómo no, por los quesos.

El resto de títulos del año contienen una amplia gama de propuestas. *Setas para sanar, alucinar y disfrutar* (**Juan Manuel Oliveira**) despertará nuestro interés por






## AIAKO HARRIA, EUSKARAZ

Euskal Herria bildumak euskaraz argitaratu du, lehenengoz, bere liburuetako bat. **Mikel Arrizabalaga**ren *Aiako Harria parke naturala eta Jaizkibel*ek bidea ireki du, eta ez edonola. Alde batetik, jatorrizko testua euskarazkoa da eta erdarazkoa, berriz, itzulpena. Bestetik, liburu hau ez da bakarrik geratuko. Hurrengo urteetan bilduma honek liburu gehiago argitaratuko ditu euskaraz. Bide luzea izango da, baina, gustuko bidean aldaparik ez!

el apasionante mundo de la micología, tan unido a nuestras andanzas montañeras. *Rutas para observar aves*, en cambio, nos llevará, guiados por **Jonathan Rubines** y **J.M. Fernández**, a los mejores observatorios de Euskal Herria. Collados, cimas, cabos marinos y lagunas nos esperan para que disfrutemos del paisaje y, sobre todo, de la avifauna que habita, nidifica o pasa por esos lugares. Otra manera de recorrer nuestros espacios naturales, en este caso de la mano de la ornitología.

El año se cierra con un título muy especial, una invitación a recorrer todo el litoral vasco en una aventura memorable. *La gran ruta de los faros*, de **Javi Pascual**, nos propone visitar todas las instalaciones de este tipo existentes en las costas vizcaína, guipuzcoana y labortana. Un recorrido fascinante sobre acantilados, playas y rías, con el océano como compañero de viaje.

**HEKTOR ORTEGA**
Editor

## NOBEDADEAK




**BÉLGICA Y LUXEMBURGO 5 (LONELY PLANET)**
AAVV
GEOPLANETA
Reputadas bombonerías, cerveceras en abadías y altísimos castillos son solo algunos de los motivos que hacen que el viajero sucumba tan fácilmente a Bélgica y Luxemburgo.




**PASEOS Y RUTAS POR BOSQUES II. PIRINEO CENTRAL**
Juanjo Sierra
SUA EDIZIOAK
Caminamos por los bosques más hermosos del Pirineo central, en los que el otoño pinta de ocre las masas forestales mixtas, los pinos negros resisten a los fríos y el rododendro ilumina con sus colores rosados el sotobosque.




**EUSKAL HERRIA FURGONETAZ. IBILBIDERIK ONENAK**
Nagore Lizarralde · Arkaitz Apalategi
SUA EDIZIOAK
Liburu honek 30 proposamen bikain dakartza Euskal Herria furgonetaz ezagutzeko. Basoak eta itsasoa, mendiak eta ibaiak, lautadak eta hiriak tartekatzen dira kilometroak egin ahala. Gaztelaniaz ere kaleratu da.




**SOÑAR GRANDE. EL K-2 INVERNAL DE SERGI MINGOTE**
Isaac Fernández
DESNIVEL
Sergi Mingote se enroló en la expedición que intentaba la primera ascensión invernal del K2 en 2020 y, desgraciadamente, perdió la vida en el intento.




**GUÍA MICHELIN RESTAURANTES ESPAÑA PORTUGAL 2023**
AAVV
MICHELIN
La prestigiosa guía Michelin de restaurantes llega en su edición de 2023 con la cuidada selección de locales valorados por los autores.




**UNA VIDA ENTRE MONTAÑAS. DE AITZKORRI A BUTÁN.** MEMORIAS DE UN MONTAÑERO
Martín Gabirain Astorqui
ALMUZARA
Este un relato personal, sincero y enamorado acerca de paisajes y culturas a través de una experiencia insólita. Habla de lo humano y de lo eterno tan elocuentemente como las fotografías que el propio autor tomó con su cámara.



# Eguzki-sistema

Aireratu gaitezen gure planetatik kanpora, eta ezagutu dezagun eguzki-sistema! Ezagutu eguzkia, haren inguruan dabiltzan planetak, ilargiak, asteroideak… baita Eguzki-sistematik harago dagoena ere, eta hamaika datu jakingarri gehiago!

9 urtetik aurrera




EGUZKI SISTEMA
Rosie Dickins - Carmen Saldana
TTARTTALO
→ Leihatiladun liburua

Animalia bitxiak
LANABESAK ERABILTZEN
Zoë Armstrong · Anja Sušanj
TTARTTALO
→ Ezagutza liburua




7 urtetik aurrera

# Animalia bitxiak lanabesak erabiltzen

Lurreko oihanetan eta desertuetan, eta itsasoko ur sakonetan, animalia bitxiak lan eta lan ari dira. Munduan, gizakiaz gain, badira lanabesak erabiltzen dituzten hainbat animalia txundigarri ere; esaterako, zenbait orangutanek hostozko aterkiak erabiltzen dituzte, eta bele azkarrek lanabes bikainak egiten dituzte. Ikasi animalia horiek nola eta zergatik erabiltzen dituzten objektuak halako modu burutsuan, eta ikusiko duzu zuk uste baino antzekotasun gehiago dituzula animalia adimentsu horiekin...

10 urtetik aurrera




DESBERDINEN KLUBA
Cati Baur
TTARTTALO
Komikia ←

# Desberdinen kluba

Martin, Edwige, Erwan eta Fredek bazekiten egunen batean gertatuko zela… Eta hara non lauren arteko adeitsuena jipoitu duten kalean. Nork? Zergatik? Bidegabekeria horrek barru-barrutik ukitu ditu eta, amorruak bultzatuta, neurriak hartu dituzte, neurri benetan bitxiak.

Komiki hau gomendagarria da bizitzak ezer balio ez duela pentsatzen dutenentzat, hazteko beldur direnentzat, baina baita elkartasunaren eta adiskidetasunaren superboterean sinesten dutenentzat ere.

3 urtetik aurrera




PINTTO eta reggae musika
Magali Le Huche
TTARTTALO
→ Soinudun liburua

# Pintto eta reggae musika

Pinttok izugarri maite du reggae musika! Bere gitarra soinean hartuta, Kingstonera abiatu da, Jamaikara. Han, gitarra jo, abestu eta dantzatu egin du, ska, rocksteady eta dub estiloen erritmoan! Eta kontzertu batean ere hartuko du parte… Paregabea, gure Pintto!



# ROSA VALVERDE ETA KUTXAK

"Traste arrunten barruan, zuk zer ikusten duzu?" galdetzen digu azaletik **Rosa Valverde** artistari **Maialen Lujanbio**k eta **Arrate Rodriguez**ek atondu dioten liburuak. Objektu arruntak dira izatez, baina, Valverdek bazuen gaitasuna bestelako bizitza batez hornitzeko, zeharo itxuraldatu arte.



**ROSA VALVERDE ETA KUTXAK**
Traste arrunten barruan zuk zer ikusten duzu?
Maialen Lujanbio - Arrate Rodriguez
PAMIELA

**Rosa Valverde Lamsfus** (Donostia, 1953 – Azkaine, 2015) artistaren lana da Pamielaren *Bagara* saileko liburu berriaren protagonista. **Valverde**k pintura, marrazkia eta kutxen barnean sortutako eszenak landu zituen. Bere konposizioetan unibertso propio, koloretsu eta bizia eratu zuen, ezustekoak eta objektuen arteko harreman bereziak sortuz. Artista originala zen, baina nahikoa ezezaguna. Liburu honen helburua bere proposamen estetikoak lau haizetara zabaltzea da.

Horretarako, **Maialen Lujanbio**ren testuek eta **Arrate Rodriguez**en ilustrazioek sormena pizten duen jolasa proposatu diote irakurleari, **Rosa Valverde**k eratu zuen kutxa sailetik abiatuta. Izan ere, liburuak ildo bi garatzen ditu, modu paraleloan. Ezker aldeko orrialdeek "objektu arruntei" buruz pentsatzen jarriko gaituzte, zer ikusten dugun haietan eta zer izan litezkeen. Eskuin aldeko orrialdeek, berriz, kutxa bati dagokion proposamena dakarte.

**Valverde**ren lana gure artean gutxi zabaldu dela iritzita, liburuaren amaieran Donostiako San Telmo museoan emandako hitzaldi baterako, Senpereko erakusketa baterako aurkezpenerako eta artistaren lanaren inguruko bideo baterako loturak txertatu dituzte.

*Rosa Valverde eta kutxak* hirugarren liburua da Pamielaren *Bagara* sail berrian. Aurretik, **Mari Paz Jimenez** (**Elena Olave** / Irrimarra) eta **Esther Ferrer** (**Aintzane Usandizagak** / **Aran Santamaria**) artistei eskainitakoak agertu dira. *Bagara* sailaren helburua euskal emakume artisten lanak ezagutzera ematea da. **Haizea Barcenilla**k eta **Garazi Ansa**k hartu dute sailaren ardura.

# SUMENDI BAT DAUKAT ETA EZ DUT ARNASTU NAHI

Hemen dira, berriro ere, **Míriam Tirado** eta **Joan Turu**, oraingoan *Sumendi bat daukat eta ez dut arnastu nahi* liburuarekin. Bost urte igaro dira jatorrizko *Tinc un volcá* (*Sumendi bat daukat*, Carambuco, 2022) argitaratu zenetik eta, ehun mila liburu saldu eta gero, sumendietako maitagarriaren abentura berria heldu zaigu.



**SUMENDI BAT DAUKAT**
ETA EZ DUT ARNASTU NAHI
Míriam Tirado - Joan Turu
CARAMBUCO

Ipuin berria aurrekoarekin lotuta egon arren, erabat independentea da. Hala egileen nola ipuinaren inguruan dabilen jendearen kezka bati zor zaio: ume txiki guztiek ez dute lortzen sumendia arnastuz itzaltzea.

*Sumendi bat daukat eta ez dut arnastu nahi* ipuinak istorio dibertigarria dakar eta, gainera, amorrua baretzeko arnasketaz gain bestelako bitartekoak behar dituzten haur txikiei (baita helduei ere!) lanabesak eskaintzen dizkie. Sam, *Sumendi bat daukat* ipuineko Albaren neba txikia, ume horietako bat da. Ikusi duenean berari arnasketa ez zaiola balio, laguntza eskatu dio sumendietako maitagarriari. Honek bilaketari ekin eta ikusi du amorrua bideratzeko bestela jokatzen duen jendea ere badela: batzuek kirolean jarduten dute, beste batzuek musika jotzen dute, entzuten dakitenekin hitz egiten dutenak ere badira…

**Míriam Tirado** eta **Joan Turu**k, arrakasta handiko bikotea osaturik, hazkuntza kontzientearen gaineko ipuin sorta sendoa argitaratu dute. Orain formatu dibertigarrian lanabes baliagarriak emateko itzuli dira, txikien eta adinekoen arteko komunikazioa eta bizikidetza sustatzeko asmoz.

**Míriam Tirado** hazkuntza kontzientean aditua da. Kazetaria ere bada, eta arrakasta handiko liburuak argitaratu ditu, hala nola, *Sumendi bat daukat*, *Titifesta* edo *Hari ikusezina*.

**Joan Turu**, berriz, ilustratzaile profesionala da. Horrez gain, sarritan joaten da eskoletara hormetan irudiak margoztera eta bestelako jarduerak egitera. **Míriam Tirado**rekin batera egindako lanari arrakasta handia lortu duten beste ipuin batzuk ere gehitu behar zaizkio, *Los hombres lloramos* edo *La princesa, el drac i el cavaller desarmat* kasu.





# 15. elkar ilustrazio eta ipuin lehiaketa



*Hemen da, beste urte batez,* ***elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa****, milaka umek eta gaztek gogo handiz itxaroten dutena. Aurtengoa hamabosgarrena izango da.* ***elkar*** *Fundazioaren ekimena da lehiaketa hau eta haur eta gazteengan irakurzaletasuna eta euskararen erabilera bultzatu nahi ditu. Aurten,* ***Esti Vivanco****k idatzitako* ***Nora joan da Nora?*** *ipuina irakurri eta ilustratu beharko dute txikienek. Koxkorragoak, berriz,* ***Alex Orbe****ren ilustraziotik abiatu beharko dira ipuina sortzeko orduan. Azkenik, eta nobedade gisa, gazteek bi aukera izango dituzte:* ***Alex Orbe****k hasitako komikiari jarraipena ematea edo beronen gaia mantenduz (txango bat) komikia hasieratik sortzea. Parte hartuko duten haur eta gazteentzako sari ederrez gain, ikastetxeei bideratutako sariak izango ditugu aurten ere, Laboral Kutxa eta Irrien Lagunak-en eskutik. Eduki kontuan: ipuinak, ilustrazioak eta komikiak aurkezteko azken eguna apirilaren 20a izango da.*



## NORA JOAN DA NORA?

Estitxu poz-pozik bizi zen, erregina baten pare. Ume batek zoriontsu izateko behar duen guztia zeukan. Gurasoek izugarri maite zuten; aitona-amonek inor ez bezala zaintzen zuten; noizbehinka, osaba-izebek oparitxoak ekartzen zizkioten… Gutxien espero zuen egunean, ordea, amari puxika bat bezala hazi zitzaion sabela. Ordutik aurrera, inguruko guztiak gauza arraroak esaten hasi zitzaizkion:

–Ze ondo, laztana! Ahizpa nagusia izango zara!

–Pozarren egongo zara, ezta?

–Txikia datorrenean, ongi zaindu beharko duzu, bihotza.

Estitxuk ulertu ez arren, baiezko keinua egiten zien buruarekin, irribarretsu.

Amari puxika erraldoi hura lehertu zitzaionean, halere, Estitxuren bizitza zeharo aldatu zen. Eta aldaketa horren erruduna Nora izan zen. Nora begi urdineko bolatxo ilehoria zen. Ume maitagarria zirudien baina, jaioberria heldu zenetik, Estitxu ikusezin bihurtu zen. Etxekoek ez zioten ia kasurik egiten. Ezertxo ere egiten ez zekien ume harekin txoratuta zeuden guztiak.

–Begira, aitaren igual-iguala da!

–Zuk uste? Amaren antz handiagoa hartzen diot nik…

Estitxuk espero zuen Nora apur bat hazten zenean, etxekoek tontokeriak alde batera utziko zituztela. Baina ez zen halakorik gertatu. Estitxuk sei urte bete zituen egunean, ospakizun handia antolatu zuten. Ostadarraren koloreak zituen pastel erraldoia prestatu zioten. Bere adarbakar mozorroa jantzita, kandelak itzaltzeko gogotsu zegoen. Etxe-

Ipuin osoa elkar.eus webgunean

HERRI URRATS 40
urratsak zubi
Senpere · Maiatzak 14

araba euskaraz
-EKIN
2023 OLARIZU
EKAINAK 11

ibilaldia 2023
Xe
ONDARROA
ekainak 24

***elkar* Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa**k *haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzea du helburu. Horretarako hiru modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera:*

### IPUINA ILUSTRATU

Haurrek, eskolako ikasturtearen arabera, hiru maila hauetako batean parte hartzeko aukera izango dute:

**A maila ilustrazioa**
HH 4 eta HH 5
(edo txikiagoak)

**B maila ilustrazioa**
LH 1 eta LH 2

**C maila ilustrazioa**
LH 3 eta LH 4

Haurrek **Esti Vivancok** idatzitako *"Nora joan da Nora?"* ipuina ilustratuko dute.

### ILUSTRAZIOA IPUIN BILAKATU

Haurrek, eskolako ikasturtearen arabera, bi maila hauetako batean parte hartu ahal izango dute:

**D maila ipuinak**
LH 5 eta LH6

**E maila ipuinak**
DBH 1 eta DBH 2

**Alex Orbek** egindako ilustrazioarekin ipuin bat osatuko dute, euskaraz. Lan guztiak ordenagailuz eta orrialde bakarrean idatzita aurkeztuko dute. Ez dira orrialde bat baino gehiagotan aurkeztutako lanak onartuko.

### KOMIKIA EDO BINETA SORTU

Gazteek, eskolako ikasturtearen arabera, maila honetan parte hartu ahal izango dute:

**F maila komiki edo bineta**
DBH 3 eta DBH 4

Eman jarraipena **Alex Orbek** hasitako komikiari edo beronen gaia mantenduz (txango bat) sortu komikia hasieratik.

**Apirilaren 20ra** arteko epea duzu lanak bidaltzeko.

## PARTE HARTU!

Oinarriak zehatzago eta landu behar diren ilustrazioa eta ipuina:
**https://postdata.elkar.eus/ilustrazio_eta_ipuin_lehiaketa/**

### SARIAK

Ilustrazioa egiten dutenen artean, maila bakoitzeko (A, B eta C mailak):

**1. Saria**
Jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (60€)

**2. Saria**
Jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (50€)

Ipuina egiten dutenen artean, maila bakoitzeko (D eta E mailak):

**1. Saria**
**Tablet bat,**
jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (80€)

**2. Saria**
**Tablet bat,**
jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (70€)

Komikia edo biñeta egiten dutenen artean (F maila):

**1. Saria**
**Tablet bat,**
jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (80€)

**2. Saria**
**Tablet bat,**
jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (70€)







Non dago Gazela irakaslea? Ikasle hauek bere etxera ikertzera joatea erabaki dute.

*Maite zaitugu, andereño* · Luis Amavisca eta Mar Ferrero · 978-84-19607-07-2




Zer dakizu ipurdiei buruz?
Informazioa eta umorea maisuki josten dituen liburua.

*Ipurdiak. Ezinbesteko gida* · Eva Manzano eta Emilio Urberuaga · 978-84-19607-23-2




+2




**MADDIREN AIREPLANOA**
Antton Kazabon
DENONARTEAN

Ama! Hegazkina da, aireplanoa, eta neu naiz gidari, neu kapitain.




**IGEL BAT**
Lesley Sims
TTARTTALO

Igel batek arrautzak errun ditu. Ikusi zer-nolako bidaia zoragarria egiten duten gelatinazko bolatxo horiek, hazi ahala, igel bihurtu eta jauzika eta korroka ibiltzen hasi bitartean.

+2




**AFALTZERA ETORRI ZEN TIGREA**
Steve Smallman
DENONARTEAN

Otsok, Erregosik eta Tortillak tigrekume bat aurkitu dute. Tigre txiki, polit eta iletsu bat. –Etxerako gorde dezakegu? –erregutu zion Erregosik–. Besarkada bat besterik ez du nahi! Baina tigrekumeak plan bat du, plan maltzurra!

+3




**O! SOINUAK EGITEN DITUEN LIBURUA**
Hervé Tullet
TTARTTALO

Hervé Tullet artista handiaren beste harribitxi bat. Berriro ere, koloreetako borobilak dira istorioaren protagonistak, eta haurrak haiekin jolasean aritzeko gonbita jasoko du. Baina oraingo honetan, umeak ahotsa jarri beharko die!

+4




**LOS CONEJOS LOCOS VAN EN LANCHA**
Philip Ardagh
EDELVIVES

Es un soleado día de verano. Las playas de Bahía Animal están concurridas de bañistas. De repente, a los mandos de una lancha fueraborda, un grupo de conejos chiflados siembra el pánico con su conducción temeraria.




**KAPIBARAK**
Alfredo Soderguit
TXALAPARTA

Animalia bitxi, handi eta iletsu haiek iritsi ziren egunean, inork ez zuen zalantzarik egin: ez! Ez zen haientzako lekurik. Elkarbizitzari buruzko liburu goxoa.

+4




**A, AITARENA**
Isabel Martins
KALANDRAKA / PAMIELA

*A, aitarena* jolaserako gonbidapena da, elkar ezagutzeko eta orri bakoitza igarotzean maitasun-harremanak estutzeko. Testua eta irudia ondo artikulatuak daude eta aitei omenaldia egiten diete.

+5




**ILE BAT ZOPAN**
Alex Nogués
TXALAPARTA

Ile bat ez da zopan ager daitekeen gauzarik bitxiena. Euli bat ez da zopan ager daitekeen gauzarik bitxiena. Badakizu zer den zopan ager litekeen gauzarik bitxiena? Otordu surrealista eta ahogozagarria.




**UNA HABITACIÓN MUY RUIDOSA**
Alicia Acosta
FLAMBOYANT

Pepino, el del oído fino, nunca puede dormir tranquilo. Se muda al campo buscando silencio para descansar, pero el ruidoso viento no deja de soplar. Su vecina, una divertida abuelita, le ofrece la solución, pero... ¡qué desastre!

+6




**SORGINA ETA KATUA**
Rafa Ordoñez
MEZULARI

Katu bat, sorgina izan nahi duena. Sorgin bat, ez duena katua izan nahi. Katu bat, sorgina katua izatea nahi duena. Sorgin bat, katua sorgina izatea nahi ez duena. Eta zuk zer izan nahi duzu?



+6




### CUENTOS DE BUENAS NOCHES PARA NIÑAS REBELDES 4
Niñas Rebeldes
DESTINO

Las niñas rebeldes vuelven, una vez más, con historias que no te dejarán indiferente. En el nuevo volumen nos hablarán de cien chicas que están cambiando el mundo y rompiendo barreras.




### DIARIO DE UN GATO ASESINO 3. UN CUMPLEAÑOS DE MUERTE
Anne Fine
BLACKIE BOOKS

Vuelven las aventuras de este gato desternillante. Uno de los libros más populares de Anne Fine, ganadora de la Medalla Carnegie y autora de la conocidísima *Madame Doubtfire*.

+8




### ELSA ETA PARADISUA
Mariasun Landa
EREIN

Elsak bost urte zituenean entzun zuen lehen aldiz hitz hau: pa-ra-di-su. Gustatu egin zitzaion. Bost segundo baino ez zituen behar izan zer esan nahi zuen galdetzeko. Hala ere, inork ez zion erantzunik eman…




### OLYMPIA. AMETSAREN BILA
Almudena Cid
ALBERDANIA

Europako Txapelketa dela eta, Olympia eta bere lagunak Italiara joan dira. Han Olympia urduri ibiliko da eta erantzukizunaren zamak ez dio lagako lo egiten eta kontzentratzen. Bilduko ote du behar duen lasaitasuna eta kemena?

+8




### HONDORATUA. GIZAJO BATEN EGUNKARIA 15
Jeff Kinney
ALBERDANIA

Greg Heffley eta bere familia bidaia egitera doaz, munduko abenturarik onenerako prestaturik. Baina planak ez dira aurreikusi bezala aterako, autokarabanetarako aparkalekua ez baita inola ere paradisua…




### DAVID PICHÓN
Swapna Haddow
FLAMBOYANT

Únete a David Pichón y a Capi en su misión para derrotar al gato más malvado de la ciudad. Habrá trozos divertidos, trozos terroríficos y trozos de galleta. Dos estrategas buscavidas.




### SUPERPODERES ANIMALES
Soledad Romero Mariño
ZAHORI IDEAS

Animales, plantas y todo tipo de organismos han desarrollado asombrosas capacidades para sobrevivir a los cambios ambientales, las enfermedades, los ataques de depredadores, la competencia con otras especies o la acción del ser humano.

+12




### LURREAN HAZIAK
Asel Luzarraga
ELKAR

Iraultza gatibu dago ezezagunen eskuetan, lagun bakarra Sayen maputxe machia duela. Ez dira Iraultza eta Zigor neba-arrebek Argentinan espero zituzten oporrak.

+12




### TRES MESES (MESES A TU LADO 3)
Joana Marcús
MONTENA

La esperada tercera parte de la saga *Meses a tu lado*. Jack Ross no creía en el compromiso, y hasta ahora no le había ido mal. La fantasía del amor verdadero no era más que un argumento sobreexplotado de las películas que más solía criticar.




### CRÓNICAS ARCANAS 1. LA EMPERATRIZ
Kresley Cole
ELASTIC BOOKS

Puede salvar el mundo… o destruirlo. Evie Greene lleva una vida de ensueño hasta que un suceso apocalíptico destruye su pueblo. Para luchar por su vida deberá unirse a un antiguo compañero de clase: Jack Deveaux.




### LOS MEDINA
Care Santos
EDEBE

Todo el mundo sabe quién es don Nicolás Medina, el capo de la familia. Muchos le tienen miedo. Se cuentan muchas cosas de él. Pero esta historia no habla de él, sino de tres jóvenes integrantes del clan de los Medina.




### ESTE INVIERNO
Alice Oseman
CROSSBOOKS

La novela que te cuenta más de los personajes de *Heartstopper*. Estas Navidades no van a ser fáciles para Charlie. Es la primera vez que se enfrenta a una celebración tras salir del hospital.



# NOBEDADEAK

## *liburuak*




### SUAK ERREKO EZ BALU

Eneko Barberena
Mondragon
TXALAPARTA

Aezkoako mendi sute batean hiru mendizale hil ostean, poliziak bi artzain espetxeratu ditu. Urtebete geroago, Konpainia izeneko aseguru etxeak Ainhoa Sanz peritua bidaliko du Aezkoara sutea ikertzera. (H)ilbeltza bekaren irabazlea.




### OTSOA ETORRIKO DA

Iñaki Irasizabal
ELKAR

Hogeita zortzi urte ditu Maiderrek, zazpi urteko seme bat, Iraitz, eta beste hainbat arazo: Unax neba gaztea desagerturik dago duela bi urtetik, eta hilketa baten egilea dela uste du poliziak.




### ALEXANDER WOLFEN MAMUA

Gaito Gazdanov
IGELA

Migrante errusiar batek, Parisen dela, narrazio liburu bat erosi eta bertan topatuko du zehatz-mehatz bere bizitzako gertakari lazgarriena idatzita: Errusiako gerra zibilean etsai bat tiroz hil zuenekoa. Ezinezkoa da baina.




### LYRICA GARAIA

Jon Arretxe
EREIN

Bilboko Afrika Txikira itzuli da Toure. Sa Kenegatik kezkatuta dago, Madrilen bisita egin zionean gorputzean beltzuneak igarri baitzizkion. Gure sasidetektibea argitzen saiatuko da bere amorante lagunari zer gertatzen ari zaion.



### WINESBURG, OHIO

Sherwood Anderson
EREIN

Amerikako Estatu Batuetako Ohion kokatzen du Sherwood Andersonek Winesburg herrixka. Hogeita bat istorio laburretan aletzen ditu bertako biztanleen nahi eta ezinak, elkar korapilaturiko bizitzak.




### ANKER

Gregorio Muro
HARRIET

Komiki honek Siberiako basoen soiltzea eta egurraren trafikoa dakar hizpide. Ezohiko protagonista hautatu du: bere giza ehizaldietan egurketari, ekologista edo mafiako kideen artean bereizketarik egiten ez duen tigre siberiarra.




### NO SLEEP TILL SHENGAL

Zerocalcare
FARMAZIA BELTZA

Zerocalcare Kurdistanera itzuli da, Irakaldera oraingo honetan. Ezidiarrei buruzko kronika egin du komiki honetan, ISISen atzaparretik ihes egin ostean milaka lagun horiek nola antolatu diren azaltzeko. Ihes egiterik izan zutenek, jakina.




### ALASKA

Castillo Suarez
ELKAR

Maite izan ditugun pertsona zein tokiei lotuta dauden abandonuaz, galeraz eta doluaz idatzi du Castillo Suarezek. Beste mugarri bat jartzera dator, indar handiko irudi eta ideiak bildu irakurlea bere baitan miatzen jarri arte.




### IBAI AHOAK

Aritz Pardina
BALEA ZURIA

Aritz Pardinaren estreinako liburua. Aforismoen bidez, eta literatura eta filosofiaren arteko mugak jorratuz, hainbat kontzeptu eta ideiaren inguruko gogoetak eskaintzen dizkigu.




### NI EZ NAIZ HAMALAU

Karlos Linazasoro
AZTARNA

Berrehun soneto idatzi ditu Karlos Linazasorok. Molde poetiko zahar hori erabili du gauza berriak esateko. Neurri-neurrian, artisau baten sentiberatasunez, birtuosismotik urrun ez dabilen dohainez. Betiko geldituko den maisu-lana.





Ignacio Martínez de Pisón

Castillos de fuego

Madrid, 1939-1945. El pulso de un tiempo terrible parece llegar a su fin, pero la guerra no ha terminado para todos.




### SPOON RIVER ANTOLOGIA
Edgar Lee Master
BALEA ZURIA

XX. mendeko AEBetako poesiaren ikur handienetako bat da Edgar Lee Masters. Ogibidez abokatua, langileen defendatzailea izan zen. 1915ean eman zuen argitara *Spoon River Anthology*, non alegiazko herri bateko hildako biztanleei ahotsa eman baitzien.




### POESIA BIZITZEKO ETA SENTITZEKO MODUA DA
Karmele Igartua
PAMIELA

Airea naiz ni hemen eta inongoa denean bizi bainaiz inon ez bezala eta guztiak ukitzen nau, halabeharrez, eta uretan atseden hartzen dut ur-azaletan, bare, aintziran errekan edo itsasoan, han umiltzen da nire egonezina igual, ez nauelako barruetan hartzen urak, ito ez nadin.



### HIZKUNTZA IBILBIDEAK, GAZTE IDENTITATEAK ETA LEGITIMAZIO PROZESUAK
Miren Artetxe Sarasola
EHU

Lan honetan bertso-eskola jarduera komunitate gisa aztertu da, gazteen euskararen erabilerari buruz maiz egiten den galdera bat alderantziz pausatuz: zergatik hitz egiten dute gazteek euskaraz.




### EGUNERO BEHAR GENUEN
Imanol Murua Uria
BERRIA / ELKAR / JAKIN

Honako hau *Egunero*ren kronika da, emergentziazko egunkari baten bizialdi laburraren kronika, alegia. Izan ere, *Euskaldunon Egunkaria* indarraren indarrez itxi eta hurrengo egunean bertan jaio zen.




### VITERITARRAK. HIRU BELAUNALDI MEDIKUNTZAN
Antxon Narbaiza
EIBARKO UDALA

Liburua Antxon Narbaiza Azkue idazleak idatzi du eta Isaac, Javier eta Alberto Saénz de Viteri medikuek egindako ibilbidea dakar. Hiru mediku, hirurak ospe eta onespen handikoak egin zuten lanagatik.




### TIBALT ERREGEAREN KANTUTEGIA
Batzuk
NAFARROAKO GOBERNUA

Liburu honek Tibalt erregearen zenbait abestiren jatorrizko testuak, biografia, Nafarroako errege honen abestien oroimenari buruzko artikulu bat eta epe horretan erabili ziren musika instrumentuak bildu ditu, besteak beste. Lau hizkuntzatan dator.




### ERALDEAK. DONOSTIAKO INAUTERIAK XIX. MENDEAN
Juan Antonio Antero
KUTXA FUNDAZIOA

Donostia suntsitu zuen 1813ko erreketaren ondoren, inauteriak suspertu egin ziren, eta, haien bitartez, gaur egungo neguko jai nagusiak sortu ziren. Juan Antonio Anterok horren guztiaren deskribapen osatua eskaintzen du.



### EUSKAL LIBURUAREN FRANKISMO OSTEKO ZENTSURA (1975-1983)
Ana Gandara Sorarrain
EHU

Joan Mari Torrealdaik landutako euskal liburuaren zentsura gaiari heltzen dio liburu honek. Alcalá de Henareseko Administrazioaren Artxibo Orokorrean (AGA) MHLI ikerketaldeak egindako datu-bilketa zehatza hartu du abiapuntutzat.




### SORGINKERIARENA GUREAN
Juaninas Paul Arzak
PAMIELA

Egileak 1969an sorginen gaiarekin aurrenekoz topo egin ondoren sekulako bide bibliografikoak jorratzeari lotu zen. horren denaren azalpena eta azterketa da edukia: sorginkeriari buruzko saiakera mamitsua.




### PETROKALIPSIA. KRISI ENERGETIKO GLOBALA NOLA (EZ) DUGUN KONPONDUKO
Antonio Turiel Martínez
TXALAPARTA

Inoiz ez gara krisi honetatik aterako. Ez, behintzat, indarrean jarri dugun eskema ekonomiko eta sozial honen barruan. Hori aspalditik jakina zen arren, ez dugu deus aldatu nahi izan, eta orain ezin da gehiago itxaron.




### AXULARREN GERIZAPEAN
Kepa Altonaga
PAMIELA

1925eko irailaren 17a. Axularren Eguna ospatu zen Saran. Hara bertaratu ziren "Eskual-Herriko idazle maitatuenak", Iparraldekoak zein Hegoaldekoak. Axularren konjuruak elkarretaratu bide zituen.




### BERPIZTU
Kepa Junkera
INFERNUKO AUSPOA

40 artista baino gehiago ditu lagun Kepa Junkerak bidaia emozional honetan. Bere musika-ibilbide osoa jorratzen du, hastapenetatik 2018ko abendura arte.





RANDOM HOUSE

EIDER RODRÍGUEZ
MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN

En esta novela hay veranos, cigarrillos, piscinas, hospitales, caballos, azulejos, cemento, arena, cartas, plantas, fuego, vacaciones, amores, mentiras, verdades, vergüenzas... y también alcohol.

«Una maravilla. Una carta al padre, honesta y dolorosa, a corazón abierto. Una excavación y una construcción escrita con mucha inteligencia y valentía».
Sara Mesa

Disponible en ebook

# NOVEDADES
## *libros*




### MAÑANA, Y MAÑANA, Y MAÑANA
Gabrielle Zevin
ALIANZA

Una apasionante epopeya sobre los videojuegos, la amistad y el dolor. Un gélido día de diciembre de su primer año en Harvard, Sam Masur sale de un vagón de metro y ve, entre las hordas de gente que esperan en el andén, a Sadie Green.




### EL CUARTO DE LA PLANCHA
Inma Chacón
CONTRALUZ

*El cuarto de la plancha* es un libro tejido con el amor de las madres y de las historias que se susurran al oído antes de irse a dormir; es un canto de amor a la familia con todo lo que tiene de caótico, de bueno, de triste, de sabio y de conocido.




### MADDI Y LAS FRONTERAS
Edurne Portela
GALAXIA GUTENBERG

Una tarde de 2021 Edurne Portela recibe una llamada en la que le ofrecen una serie de documentos sobre María Josefa Sansberro, *Maddi*, que regentó un hotel en los años treinta del siglo XX a los pies del monte Larrun.




### LOS AÑOS DEL SILENCIO
Álvaro Arbina
HARPER COLLINS

La historia que se relata en este libro está inspirada en hechos reales. Sucedió en 1936, en un pequeño pueblo en el corazón del país del Bidasoa.




### MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN
Eider Rodriguez
RANDOM HOUSE

En su primera novela, Eider Rodríguez ha recogido los fragmentos de un padre para reconstruir, desde diferentes perspectivas y con un estilo brutal y descarnado, el relato de una familia, de una época y de un lugar.




### PUNKI. UNA HISTORIA DE AMOR
Juarma
BLACKIE BOOKS

Álex y Paula han compartido juegos, castigos, litronas y el sueño de crecer y largarse de Villa de la Fuente. Son un refugio el uno para el otro, lo que consigue florecer en un pueblo invadido por lo feo, la desgracia y lo doloroso.




### 32 DE MARZO
Xavier Bosch
CATEDRAL

Barbara, una vendedora de derechos literarios internacionales, se instala en París buscando refugio. Para dejar atrás una experiencia que la ha desquiciado, se va a vivir a casa de su abuela, Margaux, con quien tiene un vínculo muy especial.




### EL DESAFÍO DE MIHO
Hika Harada
DUOMO

Una saga familiar de mujeres en busca de su propio camino e independencia. Kotoko, la matriarca de la familia Mikuriya, está convencida de que la manera en que gastas una pequeña cantidad de dinero dice mucho.




### LAS INSÓLITAS AVENTURAS DE LAS HERMANAS SHERGILL
Balli Kaur Jaswal
AMOK

Rajni, Jezmeen y Shirina son tres hermanas de ascendencia punyabí nacidas y criadas en Inglaterra. Nunca tuvieron mucho trato de pequeñas, y ahora que son adultas se han distanciado aún más.




### AGNES GREY
Anne Brontë
EDICIONES INVISIBLES

*Agnes Grey* es una revelación del precario estatus de la institutriz. Un relato íntimo, casi secreto, de esfuerzo y humillación, y de defensa del mundo interior y de la integridad moral.






### INTIMIDADES
Katie Kitamura
SEXTO PISO

Una joven se muda de Nueva York a La Haya para trabajar como intérprete en el Tribunal Penal Internacional. La plenitud que le procura su nueva vida le hace sentir que ha encontrado un lugar al que llamar hogar.




### LIBE
Alaine Agirre
EREIN

Libe y Maren son pareja y lo llevan muy bien. Libe no quiere cerrarse a una sola relación, ha vivido siempre libre, cree en ello, y quiere seguir así. Le gustaría comentar el tema con Maren, pero no sabe cómo, no quiere hacerle daño.




### CUARTO DE DESECHOS Y OTRAS OBRAS
Carolina María de Jesús
TXALAPARTA

En 1958, Audálio Dantas visitó la favela de Canindé, en São Paulo, para hacer un reportaje. Al notar la presencia del periodista, Carolina comenzó a vociferar contra unos hombres que ocupaban un parque infantil.




### GOOD BASTARD
David Braña
SERENDIPIA

El frágil equilibrio en Más Allá, en el mundo de los muertos, corre peligro. Las almas bastardas se han rebelado y el Sublime está perdiendo la poca paciencia de la que suele alardear.




### CEREBRÓMIC. EL CEREBRO EXPLICADO EN VIÑETAS
Jean Francois Marmion
NORMA

El cerebro, una superestrella algo fanfarrona, nos descubre el alcance de sus talentos en un programa de televisión presentado por la intrépida periodista Julia Mojito.




### LA BALADA DEL NORTE 4
Alfonso Zapico
ASTIBERRI

El cuarto y último tomo es el final de una revolución efímera. Con Largo Caballero en prisión, Indalecio Prieto en Francia y muchos otros rebeldes muertos o escondidos, los protagonistas de esta historia vagan por las montañas de Asturias.




### YO NO SOY MIKEL LABOA
Unai Iturriaga · Harkaitz Cano · Joseba Larratxe
ELKAR

La biografía más heterodoxa del cantante Mikel Laboa, contada de la forma más insólita. Una propuesta gráfica que derrocha imaginación, humor y amor hacia su protagonista, uno de los iconos de la cultura vasca.




### ME ALEGRO DE QUE MI MADRE HAYA MUERTO
Jennette McCurdy
TENDENCIAS

Llega la desgarradora e hilarante biografía de Jennette McCurdy, la estrella televisiva, en la que narra sus dificultades como actriz infantil, sus trastornos y adicciones, la relación con su madre y cómo retomó el control de su vida.




### UCRANIA, ENCRUCIJADA DE CULTURAS
Karl Schlögel
EL ACANTILADO

La historia reciente de Ucrania discurre a la sombra de dos tradiciones políticas opuestas: ciudades como Odesa, Kiev, Járkov, Donetsk y Yalta tienen un pasado complejo, a menudo trágico, pero también una riquísima herencia cultural.




### MÁS SECRETOS DE PAMPLONA
Juan Echenique Huarte
EUNATE

Un nuevo recorrido por la historia de la ciudad ilustrado con fotografías del archivo municipal en las que podrás disfrutar de imágenes de finales del siglo XIX y de una Pamplona que derribaba sus murallas.




### LA INTELIGENCIA DE LAS HORMONAS
Aviva Romm
GAIA

Normaliza tu menstruación, revierte el síndrome del ovario poliquístico, alivia la endometriosis, aumenta tu fertilidad, reactiva tu impulso sexual, duerme mejor, mejora tu digestión y restablece el equilibrio de tu cuerpo de forma natural.




### EL MUNDO DE LA FERMENTACIÓN
Sandor Ellix Katz
GAIA

Sandor Katz, experto fermentador y aventurero culinario, nos invita a conocer los lugares, las personas y todos los alimentos que ha descubierto en sus viajes: desde chucrut hasta chicha de jora (Ecuador), shio-koji (Japón) o efo riro (Nigeria).



# NOBEDADEAK

## musika



### TXITXARROA ETA ATUNA
Jabier Muguruza
JABIER MUGURUZA

DESKONTUA %10

Umeentzako disko berria kaleratu du Jabier Muguruzak. Hitzak Leire Bilbao olerkariak paratu ditu; doinuak, berriz, Muguruzarenak berarenak dira.




### ALARMA
Su Ta Gar
JOTAKE

DESKONTUA %10

Eibarko taldeak estudioan grabatutako hamabigarren diskoa. Errealitatearen ispilu zuzena diren eta maitasunetik idatzita dauden hamaika kanta berri. Kanta indartsu eta xamurrak. Erraietatik. Bihotzetik. Beti bezala.




### EZ DA HORREN SINPLEA
Jexuxmai Lopetegi
ZART

DESKONTUA %10

Jexuxmai Lopetegik hamabi kantu berri dakartza hala rock klasikoaren legean egindakoak nola intimismoz zipriztindurik. Harkaitz Cano, Anjel Lertxundi eta Joseba Sarrionandiaren testuak musikatu ditu.



### KOLPATUZ
Miren eta Roberto Etxebarria
JIRA MUSIKAZ

DESKONTUA %10

Roberto eta Miren Etxebarria aita-alabak diskoa atera dute musikari talde handi batez lagunduta. Beti ere trikitia protagonista dela, folk esparru zabalagoetara eraman ditu koplak.




### GURETZAT
ETS
BAGA BIGA

DESKONTUA %10

En Tol Sarmiento taldearen diskorik ausartena da *Guretzat*. Eraldaketa prozesu baten emaitza da, *Aukera Berriak* izeneko azken lanarekin hasi zena. Pop-a nagusi den apustu mimatu bat da.



### HALA ERE
Willis Drummond
GRAN SOL

Baionako laukoteak estudioan zuzenean grabatu du disko bikain hau, etengabeko bultzada oso markatua islatzen duten bederatzi kantuz osaturik.




### ADORE KEMENA KURAIA
Zea Mays
ALTAFONTE

Adore-Kemena-Kuraia hiru kantu indartsuen inguruan ardaztutako diskoa dakar bilbotar taldeak. Besteak beste, Doctor Deseoren *Corazón de Tango*ren moldaketa eta Rozalénekin batera borobildu duten *Ez Naiz Ni* ere.




### NI EZ NAIZ NORUEGAKO ERREGE
Ruper Ordorika
ELKAR

DESKONTUA %10

Ruper Ordorikaren bigarren diskoa argitaratu zenetik 40 urte bete diren honetan, CDaren berrargitalpena prestatu du Elkarrek, bermasterizatuta eta digipack txukun batean aurkeztuta.

## DVD-AK




### CINCO LOBITOS
Alauda Ruiz de Azua
KARMA FILMS

Amaia (Laia Costa) acaba de ser madre y se da cuenta de que no sabe muy bien cómo serlo. Al ausentarse su pareja por trabajo unas semanas, decide volver a casa de sus padres, en un bonito pueblo costero.




### LOS XEY
Eneko Olasagasti / David Berraondo
SINCRO

Documental que recupera la trayectoria del grupo vocal Los Xey, surgido en 1941, en plena posguerra, en Donostia.






+8



## PELUSAS

MERCURIO

A las pelusas les encanta ir acumulándose, pero cualquier corriente de aire puede hacer que desaparezcan en un instante...

+8



## LOBO 77

MERCURIO

Sólo puede quedar uno. Descarta, una a una, las cartas de tu mano sumando sus valores al del montón. El objetivo es no llegar a 77 con una de tus cartas...

+8



## INSIDE 3 ESCAPE: THE DUNGEON

TRANJIS

Inside 3 bildumak bost mini-abentura dakartza aldean, non zure pertsonaia (bolatxo batean gorpuztuta) labirintoetan barrena gidatu beharko duzun.

+8



## SOUND BOX

DEVIR

Belarri ona daukazu? Badakizu hotsak desberdintzen? Ea ba! Jolas honetan zure kideen soinuak arretaz entzun beharko dituzu mota guztietako kontzeptuak igartzeko.

+8



## MAZESCAPE KIDS - HIPNOS

DEVIR

Mazescape es un fascinante y ocurrente juego de laberintos para un jugador que supondrá todo un reto para las mentes más inquietas.



## FIGURA POP

FUNKO

Figura sorta honetan kultura herrikoiaren pertsonaia ezagunen erreprodukzioak aurkituko ditugu: Pokemon Pichu, Thor, Drakula, Batman, Wonder Woman…



# 15. elkar ilustrazio eta ipuin lehiaketa



**Parte hartu!**

+ info:
bit.ly/3Xmb1xi

antolatzailea: elkar fundazioa

babesleak: LABORAL kutxa

laguntzaileak: TTARTTALO, Katxiporreta, DJECO, DEVIR, MADNESSTOYS, HABA